




Jakingarriak

Erlijioa Eskolan?



Argitaratzailea:	Mondragon Unibertsitatea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Laguntzailea:	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Erredakzioa:	Mondragon Unibertsitatea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Dorleta auzoa z/g 20540 Eskoriatza Tfnoa: 943-714157 Faxa: 943-714032 Helbide elektronikoa: liburutegia@huhezi.edu Web orria: www.huhezi.edu
Zuzendaritza:	Nerea Alzola
Erredakzio Kontseilua:	Nerea Alzola, Mari Karmen Apraiz, Julia Barnes, Joseba Azkarraga, Pili Sagasta eta Elena Lopez de Arana
Erredakzio idazkaria:	Mari Karmen Apraiz eta Elena López de Arana
Itzultzailea:	Iñaki Mendiguren
Euskara zuzentzailea:	Karmele Pérez
Diseinua:	A. Vargas
Inprimategia:	Antza inprimategia
L.G.:	SS-981/92
ISSN:	1697-6215

AURKIBIDEA

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK


- 4 Liburu berrien albisteak
- 8 Artikulu aipagarriak
- 10 Esan dute

GAI MONOGRAFIKOA

Erlijioa eskolan?

- 12 **Alzola, Nerea.** Sarrera
- 14 **Andres, Kristina eta Fullaondo, Marije.** Erlijioa eskolan. Nola, zergatik, zertarako?
- 18 **Arregi, Joxe.** Erlijioa eskolan
- 24 **Bárcena, Jalil.** Berriro erlijioarekin bueltaka
- 28 **Casas, Roberto.** Erlijioa eskolan. Jarrera ezberdinen funts antropologikoak eta euren ondorioak
- 32 **García de Andoin, Carlos eta Vidal Fernández, Fernando.** "Gizalegea eta Bizi-zentzua" irakasgaia. Bizi-zentzuaren irakasgaiei buruzko proposamen integratzailea
- 38 **Gómez Llorente, Luis.** Erlijioa eta eskola, gaur
- 44 **Guardans, Teresa.** Giza izaera sakona lantzen
- 48 **Martín, Elena.** Erlijioaren alde
- 50 **Mata, Jesús María.** Erlijio-transmisioa gurasoengandik seme-alabengana
- 54 **Mendiguren, Inaki.** Erlijioa eskolan? Protestante baten ikuspegia
- 58 **López de Munain, Juana.** Erlijioa hezkuntzan
- 59 **Sarasua, Ion.** Erlijioa hezkuntzan
- 60 **BALIABIDEAK**

Liburu berri



Dávila Balsera, P. (Coord.) (2003).
Enseñanza y educación en el País Vasco Contemporáneo.
Donostia: Erein.

Erraz irakurtzen den liburu horietako bat dugu hau; izan ere, gai honetan adituak diren hainbat

irakasle eta ikertzailek idatziriko zenbait artikulurekin osatzen baita.

Liburu honek bete nahi izan du euskal historiografian oro har, eta euskal irakaskuntza eta hezkuntza inguruan zehazkiago, dagoen hutsunea. Liburu honen izenburua gaitzat hartuta, gero eta ugariagoak izan dira unibertsitateetan irakurritako tesiak edota kaleratutako monografiak. Ildo horri jaraiki, Paulí Davila ezagunak koordinatzen duen liburu honen nahi nagusienetako bat izan da irakurle orori —baita irakasle eta ikertzaileei ere— panoramika globalizatzailea eskaintzea gaur egungo eta XIX eta XX. mendeetako euskal irakaskuntza eta hezkuntzari buruz.

Pauli Davila Hezkuntzaren Historian katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. Bertan eratu zen Hezkuntzaren Historia eta Teoriaren departamentuaren “alma mater”a da, eta ugariak dira bere ekarpenak euskal irakaskuntzari eta hezkuntzari eskainitako ikerlanetan. Beraz, erreferente bihurtu da gai hau aztertzeko.

Bost eremu aztertzen dira liburuan. Lehenik eta behin, hezkuntza politikaz jarduten du: Foruak, Kontzertu Ekonomikoak eta Gernikako Autonomia hartzen dira politika horren testuingurutzat. Bigarrenik, Lehen Hezkuntzari buruzko gai batzuk aztertzen ditu: testu liburugintza, irakasletza eta berrikuntza pedagogikoa, Gipuzkoako auzoetako eskolak edota Gasteizko eraikuntza eskolarrak.

en albisteak

Bigarren Hezkuntza da hirugarren eremua, eta bere jatorria eta bilakaera aztertzen ditu. Laugarrena bitxia bezain interesgarria da, ume garaian oinarrituta, umezurtzak edota ume gaizkileak aztertzen direlako, baina hezkuntza parametroetatik beti. Bosgarrena da, agian, irakasle eta ikertzaileentzat, interesgarriena; izan ere, azken urteetan euskal irakaskuntza eta hezkuntzari buruz unibertsitateetan egon diren ikerlanak aipatzeaz gain, historiografikoki egun dauden hutsuneak zeintzuk diren ere adierazten duelako. Horrekin lotuta, ez da, egia esanda, oso alaia eta baikorra eskaintzen zaigun panorama. Alegia, gutxi ikertu da eta hutsuneak, beraz, ugariak dira, bai gai, garai historiko edota alderdi metodologikotik begiratuta.

Liburu interesgarria, beraz; eta hezkuntza lanbidetzat dugunontzat kontsultarako materiala eskaintzen duena. Eta urrutirago joan nahi izanez gero, aldi berean, Irakasle Ikasketetan ere eman beharreko gaia eta edukia, gure ikasle berriek jakin dezaten euskal hezkuntza eta irakaskuntzaren jatorriak eta ezaugarriak zeintzuk diren.

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultateko irakaslea



Correia Soeiro, A. (2003).
El instinto de platea en la sociedad del espectáculo.
Hondarribia: Editorial Hiru.

Liburu honen autorea Alfredo Correia Soeiro dugu, psikiatra brasildarra, psikodrama eremuan ongi jantzia eta Euskadirekin lotura duena, hain

zuzen ere, zesta-puntako pilotaria eta egun Brasilgo Euskal Pilota Federazioko zuzendaria delako.

“Platea” hitzak ikusleak dakarzkigu burura eta, hein berean, taula baten gainean kokatuta sentitzera garamatza. Munduak, eta munduan gertatzen den bizitzak, antzerki itxura hartzen du eta, abiapuntu horretatik eramaten gaitu ohartzera zein garrantzitsuak diren txaloak edo oihuak norbanakoaren garapen bidean. Lau jarrera bereiz ditzakegu munduko teatroaren aurrean:

- Artista, sortzaile, irakasle, ikasle, langile ekintzaile eta abarrena.
- Tapizatutako eserlekuetatik txalotzen dutenena.
- Oihuka eta txistuka aritzen direnena.
- Ez oihu, ez txalo, ez ezer egin eta egon bakarrik egiten direnena.

Noski, horiek guztiak nahasian bizi ditugu!



Jarrera horiek guztiak osatzen dute hezkuntzaren errealitatea, maila guztietako ikaste eta irakasteak norbanako nortasunaren egituraren funtsezko eginbeharra dutenez. Inguratzen gaituzten pertsonen “kanpoko ikusleen” multzoa osatzen dute. Horien artean eta bakoitzaren historian zehar, badaude garrantzi handiko pertsonak izan direnak, gureganatu eta barneratu ditugunak, eta horiek “barruko ikusleen” taldekoak bihurtu dira. Eta, azken batean, askotariko eta ezberdintasunez jositako mundu honetan, gutariko bakoitzak, bi ikusle mota horiez gain, geure nortasunaren tinkotasuna bizi nahian, “auto ikuslearen” bizipena dugu, gutariko bakoitza, hein berean, behatzaile eta behatu gertatzen da.


Elkarreragin horretatik sortzen da protagonistaren eta ikusleen arteko etengabeko jolasa. Bizi osoan irauten duen jolas horretaz hitz egiten digu liburu honen autoreak, era argi, didaktiko eta erakargarrian. Eta azpimarratzen du “ikusle sena” gizakiok gudan nabaritzen dugun indar orekatzaile nabarmenenetakoa dela. Eta hori horrela bada, testu honek zeresan handia du eguneroko jokaeretan eta munduarekiko jokaera pertsonaletan. Gutariko bakoitzarengan, biologikoki sustatuta dago espeziearen jarraipena babesten duen “sena” hori, eta adierazten digu ezinbestekoa dela, era berean, geure arteko erlazioen zainketa aintzakotzat hartzea, oreka sozialaren osasuna eta aberastasuna lortu nahi baditugu.

Hezkuntza eremura ekarrita, liburu honek ekar dezakeen argi eta indar berezia zera izango litzateke, alegia, ikaslea eta irakaslea bata bestearen ikusle direla konturatzea eta era samur eta hobean bizitzea. Ikasgelaren eta ikasle-irakaslearen arteko harremanak munduko taula gainera eramaten laguntzen badigu, sentipen berrien aurrean aurki gintezke, hezkuntza eta bizi osoko garapenaren indar sortzailearen burrundaran murgildurik, munduko antzerki honetan protagonista eta, ezinbestean, ikusle egoera gozatuz.

Espero dut, irakurri ondoren, bizitzako teatroa gonbidatuak senti gaitetzkeela era argi eta samurragoan. Zabal dezagun oihala!

Arantxa Ugartetxea Arrieta
Pedagogoa





Abasolo, R.; Lopez de Munain, J.; eta Uribe Irazusta, A. (2004).

Ilunetik argira. Elbira Zipitria.

Donostia: Hik hasi.

Duela 60 urte baino gehiago egindako lana eta lan hori egin zuen pertsona aurkezten ditugu liburuan. Euskal eskolaren gerra aurreko eta ondorengo mugimenduen arteko lokarria izan zen Elbira. Andeñoa, abertzalea, euskaltzalea, fededuna. Arlo guz-

tiak muturreraino eraman zituen, klandestinitatean bizitzea zekarkiotela jakin arren.

Elbirak garbi zeukan zer nahi zuen: haurrek euskara ikasi eta erabiltzea —hizkuntza eta hezkuntza lotuz—, eskola euskalduna, eskola berria, logikaz ikastea eta zentzumen guztiak suspertzea, familiak seme-alaben heziketan inplikatzeko. Horrek guztiak ikaslea bere ikaste prozesuaren protagonista bihurtzen zuen eta irakaslea, prozesu horren bitartekari. Horixe egin zuen Elbirak: eguneroko jardura txiki-nari estrategia bizien bidez zentzuzko erantzun praktikoak emanaz; egoera naturalak aprobetxatuz; erritmoa, konstantzia eta bizitasuna orekatuz; eta haur bakoitzaren ahalmenetatik abiatuz.

Elbiraren lorpen nagusienak hauexek direla esango genuke: eskola bizia egitea, hizkuntzen garrantzia transmititzea eta maila gorenera eramatea, teoria eta praktika uztartzea eta heziketari izaera soziala aitortzea.

Azkeneko urteak bere baitan pasatu zituen, gaixorik, gizarte hark eskatzen zituen ildo berrietara nola egokitu ez zekiela. Ez zuen jakin nola moldatu aurreko garaietan berak hainbeste borrokatu eta defendatu zituen ildoak. Baina ziur gaude garai honetako emakumea izango balitz jakingo lukeela nola moldatu eta borrokatu gaur egungo hezkuntzari dagozkion berrikuntzak eskolan txertatzeko eta fruituak emateko.

Resu Abasolo
Juana López de Munain





Artikulu aipagarriak

Garrote, M; Santiago, M; Sas, I (2005). Filosofía en educación infantil, un ejercicio de pensamiento. *Aula de Infantil*, 23, 17-19 orr.

Filosofia bizitzarako oinarrizko erreferentziatzat hartzen dudanez, oso interesgarria eta aberatsa iruditzen zait Haur Hezkuntzan aplikatu eta zabaltea. Izan ere, pentsamendua landuz, jakintza honek pertsona osoak eta kritikoak hezteko aukera paregabean eskaintzen digu, eta horrek garrantzi itzela du hezkuntza arloan.

Gai honen inguruan — Pentsatzen ikasten jolasa bitarteko— Galiziako andereño batzuek azaltzen digute hiru urtetik aurrerako haurrekin izandako esperientzia.

Jolasaren hasieran, gelako maskotak azalduko ditu erabiliko diren oinarrizko arauak: biribilean eseri, hitz egin nahi denean eskua altxatu, kideak arretaz entzun, hitz egin aurretik esan nahi dena pentsatu... Horrela, haurrek

arauak errespetatzen ez ezik, arau berriak ezartzen ere ikasiko dute, beharrezkoa gertatzen zaien heinean.

Halaber, jolas honen bidez, hainbat gauza ikusi ahal izango ditugu: adostasunez egindako gogoeta baten ondoren haurrek zein puntutaraino arrazoitzen duten; zenbateraino diren norberarenak emandako erantzunak edota besteek esandakoa errepikatzen duten; zenbateraino diren gai kideen ekarpenak jaso, erlazionatu eta beste bat eratzeko.

Azkenik, pentsatzera bultzatzen gaituen jolas honek ematen digu haurren adimenetik pasatzen den informazioaren berri: erabilitako hiztegia, gainontzekoek egindako ekarpenekin bere pentsamendua nola moldatzen duen. Trebezia horien lanketak haurraren garapen eremu guztietan eragiten du.

Arantxa Landa
Mondragon Unibertsitateko
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien
Fakultatea

Autoritatea mugak jarri ezinik. *Hikhasi*, 97 (2005), 8-14 orr.

Adin guztietan garrantzitsua bada ere, ezinbestekoa da haurtzarotik hastea umeei mugak ipintzen. Horrek ez du esan nahi gurasoek autoritarioak izan behar dutenik — benetako autoritatea komunikaziotik eta eredu izatetik baitator—, baizik eta familiek berreskuratu egin behar dutela euren seme-alaben heziketan duten egiteko nagusia.

Mugak jartzea, EZ esaten jakitea, horixe da egun gurasoei gehien kostatzen zaien gauzetako bat. Autoritarismoan erortzeko beldurrez, beste muturrera joan gara, eta “inork ez du autoritaterik eduki nahi”; baina autoritaterik ez bada, haurrak ez du erreferentziarik, eta orduan kaosa sortzen da. Garbi eduki behar dugu gure seme-alabek bizitzarako balioko dieten erreferenteak behar dituztela ikasiko baldin badute itxaroten, frustrazioei aurre egiten, ahalegintzen. Eta erreferente horiek eskaintzea gurasoen funtzioa da (eskolarena baino gehiago); izan ere, gainerakoan,

ondorioak ez baitira hain gozoak izango.

Beraz, aitak eta amak seme-ala-bentzat guraso izan behar dute, eta ez koadrilakoak. Gauza bat da hurbilekoa izatea eta beste bat, oso ezberdina, paperak aldatzea, eta hori ez da inondik inora komeni.

Amaia Jauregi
Mondragon Unibertsitateko
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien
Fakultatea

Rocabert, B. (2005).
Llançar-se a experimentar.
Perspectiva escolar,
293, 60-65 orr.

Artikuluak Plastika arloak hezkuntzarako dituen ahalmenak eta lantzen dituen hainbat aspektu lantzen ditu. Besteak beste, sormenaren aurrean dauzkagun jarrerak, erruaren funtzioa ikaskuntzan, plastika bide moduan eta ez helburu moduan, teknika-ren garrantzia, etab. Artikulu interesgarria.

(2005) Infancia y vida en grupo. *Aula de infantil*,
24, 5-32 orr.

Monografiko honetan Haur Hezkuntzan antolatzen diren talde moten inguruan zazpi ekarpen daude. Batzuk orokorrak dira eta beste batzuk 0-3 zikloan edo 3-6 zikloan zentratzen dira.

Bertan aurki ditzakegu, besteak beste, gai hauek: taldeen antolatetaren konplexutasuna, afektu eta sentimenduen garrantzia,

hezkuntza sozialerako bideak, etab. Hezitzaile askorentzat, material hauek hezkuntza sozialerako eta norberaren ezagutza bultzatzeko oso interesgarriak izan daitezke.

recursos didácticos en la educación infantil.
Comunicación y Pedagogía,
200, 56-59 orr.

Artikulu honek bi gai nagusi jorratzen ditu: Haur Hezkuntzako materialen ezaugarriak eta horien erabilerarako hainbat irizpide eta materialen funtzioa curriculum diseinuan.

Autorea oso testu ezagunetan oinarritzen da (ikus Zabala, Zabalza, etab.) baina, gure ustez, noizean behin oinarritzko gai hauek gogoraztea ondo datorkigu.

(2005). Elkarrizketa.
Hikhasi, 97, 16-23 orr.

Loris Malaguzziren pentsamenduak eta Reggio Emilia-ko eskolen esperientziak azken urteetan oso ekarpen interesgarriak eskaini dizkigute, batez ere, Haur Hezkuntzako hezitzaileei.

Ale honetan, berriro ere, Reggio Emilia-ko bi profesionalen eskutik Italiako udal eskolak "bisitatzeko" aukera aparta daukagu.

Font, R.; Prat, M. (2005).



Juego de valores. Un proyecto interactivo que pone en juego los valores del juego y del deporte.
Aula 140, 21-24 orr.

Artikulu honek Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko "Juego de valores" proiektua azaltzen du. Bertan proiektuaren helburuak adierazten dira: hainbat baloreren lanketa (errespetua, tolerantzia, etab.) eta kirol profesionalaren inguruko hausnarketarako ahalmena.

Nerea Alzola
Mondragon Unibertsitateko
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien
Fakultateko irakaslea



Esan dute



Haur eskolen kalitatea neurtzen dena da irakaslearen eta haurren artean sortzen den harremana; eta kamera batek ez du empatia hori erakusten

Izaskun Madariaga Iragarri. Berría, 2005eko urtarrilaren 9a.



...nik ez dut amets handirik eta zeru ederrik eskaintzen. Poesia pixka bat eskain dezaket, eta dezentzia pixka bat erreklamatu. Besterik ez. Diktadura gehiegi ezagutu ditugu, eskuinekoak eta ezkerrekoak, eta krimen gehiegi, oraindik jolasean aritzeko.

Xabier Lete (2004). Hemen 4



El progreso no puede convertirse en "religión oficial" de una sociedad porque

nuestro progreso concreto es muchas veces contrario al bien común, por su errónea identificación entre progreso y crecimiento.

José I. González Faus (2005). La difícil laicidad. Barcelona: Cristianisme i Justicia, p. 12



El carácter laico de una sociedad no implica el proselitismo de ideas no creyentes, y el carácter público de una fe religiosa no implica en absoluto la pretensión de una teocracia ni de una sociedad confesional.

José I. González Faus (2005). La difícil laicidad. Barcelona: Cristianisme i Justicia, p. 27



Son incontables los grupos que habrían estado mejor si los individuos se hubieran negado a transformar las diferencias

de opinión en irreconciliables morales

Joan Chittister (2004). Vocación de eternidad (la regla de San Benito). Santander: Sal Terrae, p. 229



Es imposible construir un país, un mundo humano, si la palabra no tiene valor alguno, si lo falso y lo verdadero son medios igualmente válidos para lograr los objetivos, si ya nunca vamos a estar seguros de qué es verdad y qué es mentira. Hemos hecho de nuestro país y del mundo una auténtica Torre de Babel en la que, al matar el valor de la palabra, es imposible comunicarse y entenderse.

Antonio Pérez Esclarín (2004). Educar para humanizar. Madrid: Nancea, p. 21



Aujourd'hui, nous n'en sommes qu'à la préhistoire de la

Fraternité, et il faut commencer par en inventer la pratique dans la modestia du quotidien eta la démesure de l'ideal.

Jacques Attali (2000). *Fraternités. Une nouvelle utopie*. Paris: Fayard. P. 213

“ Si la persona es completa novedad, capacidad continua de autonomía y autocreación, de libertad y responsabilidad, la persona es la antítesis de una cosa, de algo radicalmente acabado y condicionado.

Domínguez, X. M., Segura, J., Barahona, A. (2005). *Personalismo terapéutico*. Frankl, Rogers, Girard. Madrid: Fundación Emmanuel Mounier. P. 51

“ Una persona racista se predestina a perder muchas experiencias porque se autoexcluye

Boladji Omer Bertin Oke. *Cuadernos de Pedagogía* 344, marzo 2005, p. 43

“ Gure eskoletan denek garrantzitsu bat eztabaidatzen dute: haurrek haurrekin, haurrek helduekin, helduek helduekin... Malaguzziren esperimentu filosofikoaren eta psikologikoaren ezaugarri garrantzitsu bat eztabaida kognitiboa, pentsamenduarena. Ideien eta

kontzeptuen eztabaida aberatsen sinesten zuen.

Tedeschi, M.; Piccinini, S. (2005). *Elkarrizketa*. Hikhasi, 97, 16-23 orr.

“ Hezkuntzaren helburua ez da gaitasunak dituzten profesionalak sortzea, gizon eta emakume zoriontsuak egitea baizik

Frai Betto (2005). *Kataluniako Hezkuntzarako Gizarte foroa*.

“ No se trata de negar la posibilidad de practicar esta o aquella religión, ni mucho menos de banalizar la angustia ante la enfermedad, el sufrimiento, la injusticia, la desgracia o la muerte, o la perplejidad ante la magnitud de lo que desconocemos, ni de negar el desasosiego en la incertidumbre de muchas decisiones importantes. Pero la religión no tiene el monopolio de la vida espiritual, pues la filosofía, la ciencia o el arte también son fuentes de espiritualidad.

Jordi Beltrán del Rey (2005). *La enseñanza de la religión: los argumentos*. Cuadernos de Pedagogía, 344, 76-80 orr.

“ En la literatura lo que de veras importa es la elaboración imaginaria de la

realidad, no tanto su calco. Parece claro que enseñar a leer es internar a los alumnos en los complejos lenguajes que recrean las vicisitudes humanas, adiestrar sus ojos y sus oídos para captar la dimensión poética del mundo.

Juan Mata (2004). *Cómo mirar la luna. Confesiones a una maestra sobre la formación del lector*. Barcelona: Graó, p.59.


“ [...] Tenemos que organizar salidas (en la escuela), por ejemplo, con la única finalidad de mirar el mar, de impregnarnos de su calma, de fijarnos en sus colores, de escuchar el rumor de las olas... La propia vida escolar pide una serie de cualidades y actitudes que este tipo de actividades que tienen que ver con la observación, la contemplación o la escucha favorecen enormemente.

Bach, E.; Darder, P. (2004). *Des-educate. Una propuesta para vivir y convivir mejor*. Barcelona: Paidós. p. 137

“ Un solo pueblo no puede conocer todos los caminos de Dios; por eso Dios creó muchos pueblos. Cuando un pueblo dice: "Yo sé todo sobre Dios y lo sé mejor que los demás", ese pueblo no conoce bien a Dios.

Saila kuna Horacio Méndez. Líder espiritual del pueblo Kuna.

Erlijioa eskolan?





Nerea Alzola

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



Erljioaren gaia oso sakona da, gure sustrai historiko, kultural eta izpiritualak. ukitzen baititu. Azkeneko urteetan izugarrizko aldaketak egon dira gure gizartean, eta aldaketa garrantzitsu bat erlijioarena izan da. Egun, nahiz eta pertsona ugari ez adierazi sentimendu erlijiosorik, horien familian, lagunaren artean, ezagunen artean, topo egiten dute sentimendu erlijiosoekin, sinismen batzuekin, hainbat barne-barneko intuizioekin.

Gure ustez elkarrekiko errespetuan aurrerapauso batzuk ari gara ematen eta konturatzen aniztasuna normala eta aberatsa dela. Horren ondorioz hasi gara ulertzen erlijiosoek eta ez-erlijiosoek tokia daukagula gure munduan, bide ugariak daudela bizitzeko eta barne zentzua bilatzeko.

Gauzak horrela, eta hain zuzen gaia oso konplexua delako, Hezkuntza Lege berria dela-eta, hezkuntzako eztabaidetan erlijioa eskolan gai garrantzitsua bihurtu da, bai

eta gizartearen aniztasunaren adierazgarri.

Egoera hori ikusiz, Jakingarriak aldizkariak gogoeta-espazioa eskaini nahi izan dio, eta pozio ezberdinetako pertsonak gonbidatu ditu. Ale honetako orrietan aurki ditzakegu postura askotariko katolikoak, ez-erlijiosoak, kristau ebanjeliko bat eta musulman bat; aniztasunaren erakusgai txiki bat, besterik ez.

Hausnarketa eskaini diguten lagun guztiei gure esker beroak eta irakurleei, irakurketa aberatsa eta atsegina izan dakizuela!

Erlijioa eskola

Nola, Zergatik

Kristina Andres eta Marije Fullaondo

Sortzen-lkasbatuaz Elkartearen izenean

Azken hilabeteotan Eliza Katolikoak hainbat gairen inguruan hartu dituen jarrerak guztion ahotan ibili dira; Estatu Espainolean zehazki, eskolaren bidezko erlijioaren irakaskuntza konfesionala izan da gaiotako bat —erlijio katolikoa, noski—. Ez gara gu hasiko jarrera horien etikotasuna aztertzen, are gutxiago baloratzen; baina dagokigun esparruan, irakaskuntza publiko ez unibertsitarioan, alegia, gurea bezalako gizarte laiko eta anitzean erlijioak hartu beharko lukeen lekuaz gure iritzia emateko aukera eskaini zaigu eta iritzi hori azaltzen ahaleginduko gara.



Esan bezala, batetik, gizarte laikoa da geurea. Bestetik, erlijio kontutuan, anitzak eta li-

break gara herritarrak, fededunak batzuk —erlijio anitzetako fededun—, fedegabeak besteak, batzuek zein besteok eskubide berberak ditugula. Bestalde, irakaskuntza gizaki oren oinarrizko eskubidea da; are gehiago, 5 eta 16 urte bitarteko pertsona ororentzat derrigorrezkoa da irakaskuntza gure gizartean. Beraz, gizarte laikoa eta anitza, guztiontzako irakaskuntza eta derrigorrezkoa... nola uztartu, bada, erlijioaren —

edozein erlijioaren— irakaskuntza konfesionala?

Gure aburuz, ez dago ezkontza posiblerik. Gizarte laikoak —edozein gizartek, esango genuke— eskola laikoa behar du; inolako doktrinamendurik bilatzen ez duen eskola, ez doktrinamendu erlijiosoa, ez beste edozein motatakoa ere; doktrinamendua ez baita, inolaz ere, irakaskuntza formalaren funtzioa. Eskolaren funtzioa per-

n.

k, Zertarako?

tsonaren hezkuntza integrala da; eskolaren funtzioa aukera berdintasuna bermatzea da; eskolaren funtzioa autonomoki bizitzeko gai izango diren pertsonak heztea da; eskolaren funtzioa pertsona kritikoak formatzea da; eskolaren funtzioa elkarrekiko errespetuan eta elkarkidetzan heztea da; eskolaren funtzioa bizimodu anitz dagoela erakustea da, bai eta nork bere bidea libreki aukeratzeko pentsamendua garatzen laguntzea.

Finean, eskolaren funtzioa, edo funtziorik garrantzitsuenetakoa behintzat, norbanakoaren, gizartearen eta izadiaren hobekuntza lortuko duten balore etikoak garatzea da. Aipatutako funtzio horiek guztiek eta edozein motatako doktrinamendu asmok talka egiten dute, kontrajarritako bideak dira.



Dena den, eskolaren bidezko erlijio(ar)en irakaskuntza konfesionalari ezezko borobila ematen badiogu ere, erlijioek egungo gizarteetara iristeko ibilbide luzean onerako eta txarrerako izan duten —eta oraindik ere daukaten— eragina

ukaezina da. Hala ere, badago erlijio hitza bera ere eskolatik urruti nahi duenik, baina hori egin nahi duenak bere historia-ren zati bat ari da ukatzen, bere kultur eta giza nortasunaren egikaritzan garrantzitsua izan den zati bat; zeren, gustatu ala



Haritz Arregi aitonaarekin.

ez, erlijioek kulturen garapenean —politikan, historian, literaturan, zientzian musikan, arkitekturan, pinturan, eskulturan, gizarte eraikuntzan, hezkidetzan eta abarrean— izandako

eragina handia izan baita, eragin baikorra batzuetan, ezkorra besteetan. Eta, ez dezagun ahaztu, eskolaren beste funtzio garrantzitsu bat norbere kulturaren transmisioa eta haren bilakaeraren moduak eta arrazoiak argitzen laguntzea da. Ondorioz, erlijioek bizitzaren alor horietan guztietan nola, zergatik eta zer ondoriorekin eragin duten aztertzea eskolaren lana ere bada, inolako doktrinamendu asmorik gabe, noski; gertakari objektibo gisa baikik. Alabaina, nola egin hori? Hortxe koska!

Ildo horretan, izan dira azken 15 urteotan lege eta proposamen ugari. Ez ditugu denak aztertuko hemen, luzeegi joko bailuke horrek eta, dagoeneko,

gehiegitxo luzatu baikara. PPreu gobernuak garatu eta “Ley Orgánica de Calidad de la Enseñanza” (LOCE) izen ezin desegokiagoarekin bataiatutako legeak arautu eta PSOEren gobernuak, bertan aldaketak sartu asmoz, nolabait gelditu edo geldoarazi duen aplikazio asmoei eta hark egindako proposamen berriei baino ez diegu helduko hemen, eta motz gainera.

PPk sortutako LOCEk erlijioa —bere dimentsio konfesional ala ez konfesionalean (aukeran)— derrigorrezko bihurtzen zuen “Gizartea, kultura eta erlijioa” ikas arloaren bidez; ebaluatu beharreko gaia, beraz. PSOEek proposatzen duen alternatibaren, ordea, bi aspektu

**“PPk sortutako
LOCEk erlijioa
derrigorrezko
bihurtzen zuen
Gizartea, kultura eta
erlijioa ikas arloaren
bidez”**

zehazten dira: alde batetik, erlijio konfesionalen irakaskuntza eskola orotan eskaini beharrekoa da, aukerako arlo gisa; bestetik, erlijioen irakaskuntza ez konfesionala beste ikas arlo batzuen —geografia, historia, filosofia edota hiritartasuna— curriculumean txertatuko da.

Proposamen horien harira, gure aldetik, PPK hartutako bide-

**“Hobe litzateke,
denon sinesmenak
nahiz bizitzeko
filosofiak
errespetatuz,
Erljioen Historien
irakaskuntza
bultzatuko balitz”**

ari zein PSOEk egindako lehenengo zehaztapenari —erlijio konfesionala aukerako arlo gisa— ezezko borobila ematen diogula lehendik ere esana dugu. Lehen azaldu moduan, erlijioaren irakaskuntza konfesionala ez dagokio denontzako eskolari, eremu pertsonalari baino; beraz, eskolatik at egon beharko luke. Gainera, PSOEk proposatzen duen aukerazko eskaintza horrek ikasle guztien aukera berdintasuna ukatzen du. Zergatik hori?

Bada, proposamen horretan erlijio konfesionalaren aukera egiten ez duten ikasleei arreta berezia eskainiko omen zaie gainontzeko ikas arloetako beharrak ase ditzaten. Zer esan nahi du horrek? Erlijio konfesionala aukeratzen duten ikasleek ez dutela arreta berezi horren beharrik? Eta, noiz eskainiko zaie, bada, ikasle horiei berez eskolaren funtzioa beharko lukeen arreta berezi hori? Eskola ordutegitik kanpo? Ez dirudi bidezkoa, ezta?

Bestetik, PSOEn proposamenaren bigarren zehaztapenarekin —hainbat ikas arlotan curriculum bidezko erlijioen irakaskuntza ez konfesionalarekin, alegia— bat etor gintezke, baina hori gauzatzeko erabil daitezkeen bideekin zalantza handiak sortzen zaizkigu. Zeintzuk dira jarraituko diren ibilbideak? Ez ote da egongo “gizarte demokratikoaren baloreak” erlijio zehatz batekin lotzeko tentaziorik? Ez al da sortu, bada, hiritartasuna landuko omen duen arlo berria balore horiek garatzeko? Galdera gehiegi.

Gure ustez, hobe litzateke, zerbait egitekotan, denon sinesmenak nahiz bizitzeko filosofiak errespetatuz, Erljioen Historien irakaskuntza bultzatuko balitz, gertaera erlijiosoak jardun historiko, politiko, literario, artistiko eta abarrekin izan duten lotura agerian uzteko.

Gure aldetik, eskola laikoa defendatzen jarraituko dugu. Ino-

lako doktrinamendurik bilatzen ez duen eskola, laikotasunak pentsaera eta ideologia ezberdineko hiritarrak elkarrekin lanean, elkarrenganako errespetuan, besteei entzunez jarduteko aukera sustatzen duelako; laikotasunak pertsona guztien bizimodu, sinesmen, ideia eta iritziak baloratu eta aitortzen dituelako; laikotasunak elkarlernerako ohiturak eta jokabideak lantzen dituelako; laikotasunak nork bere sentimenduak adierazteko giro egokia bultzatuz, elkarbizitzen eta solidarioak izaten laguntzen duelako; eta laikotasunak naturarekiko nahiz ondare kulturelekiko begirunea eta estima bultzatzen eta zaintzen dituelako. Eta eskola laiko horrek irakaskuntza mota bat eskatzen du, irakaskuntza etikoa, alegia. Etikan oinarritutako irakaskuntzak baino ezin baititu norbanakoaren, gizartearen eta izadiaren hobekuntza ekarriko duten balore etikoak garatu, irakaskuntza etikoak baino ez baititu pertsona etikoak heziko.



Erlijioa eskolan



Joxe Arregi

Teologia irakaslea

Duela hilabete batzuk, Espainiako Eliza katolikoaren adierazpide publikoetan puntako arazoa izan genuen erlijioa eta eskolarena. Eliz giroa gaiztotua dago, eta eztabaidak berriro laster itzuliko direlakoan nago. Eta beldur naiz ez ote diren oso onean itzuliko, eta ez hain onerako.

Zilegi bekit giroari buruzko gogoetatxo bat, eskatu zaidan gaiari heldu aurretik.

1. Eliza beti liskarrean?

Itxura batean, Eliza katolikoko zenbait ordezkari petraldurik dabilta, umorea eta patxada erabat galduta. Lanturako pronto, errietarako prest.

Nik ez dut Eliza petralik nahi. Fededun kristaua naiz eta Eliza maite dut, baina Eliz ordezkari askoren petralkeriak min

ematen dit, eta askori, euren burua kristau katoliko gisa airtortzeko lotsa. Ez diet perfektuak izateko eskatzen, baina apalago, otzanago, gozoago izan daitezen nahi nuke. Eta ez diet, noski, borondate txarrik egozten. Garaiz kanpo ote dauden iruditzen zait, eta horixe da agian kontu guztia. Erljio katolikoak gizartea taxutzen zuen garaiak joan ziren, eta horixe da ikusten edo onartzen ez dena.

Eta orduan, jakina. liskarbideak edo liskarrerako aitzakiak noiz-nahi: abortua, eutanasia, erlijioaren irakaskuntza, Eliz erakundearen finantzaketa, homosexualen ezkontza, preserbati-

boak edo... Ibarretxeren Plana!

Tamalgarrria iruditzen zait. Ez dut nahi Eliza mutua, ez sakristietan gorderiko Eliza, ez Eliza lotsati eta beldurtia. Baina ezta egiaren eta onaren jabe den Eliza ere, ez irakasten bakarrik dakien Eliza, ez gizakien eta gizartearen kontrola bere gain hartu nahi duen Eliza, ez "betiko" doktrinari eta "betiko" moralari eutsi nahi liokeen Eliza. Gaurko kulturarekin adiskideturiko Eliza nahi dut. Gaurko gizartean, gaurko gaztedian konfiantza duen Eliza. Esaten adina entzuten, irakasten adina ikasten dakien Eliza. Bere patrikarekin eta besteen bragetarekin hain obsesionat

tua ez legokeen Eliza. Egia adina elkarrizketa maite duen Eliza solaskidea. Sexua baino justizia gehiago axola zaion Eliza. Gaurko egoerari eustea baino etorkizun berrirako bideak urratzea gehiago axola zaion Eliza bidelaguna. Umore oneko Eliza maite dut. Errukia eta bakea darion Eliza.

Horrenbestez, natorren gaira: eskolan erlijiorik bai? Eta izatekotan, zer baldintzatan?

2. Nondik gatoz eta zertan gara?

Eztabaida honen maratilak ulertzeko, nondik datorren laburki gogoratzea komeni da. Hona hemen hiruzpalau datu:

- Frankismoaren garaian, "ez zen arazorik": kristau-erlijio katolikoa Estatu-erlijioa zen eta, Eliza katolikoa Estatu konfesionalari ematen zion babesaren truk, Estatuak erlijio katolikoa babesten zuen arlo guztietan, zer esanik ez eskolan.
- 1978ko Konstituzioak egoera arras aldatu zuen, teoriarik behintzat: gurasoen euren konbikzioen arabera erlijio-hezkuntza neska-mutikoei emateko duten eskubidea aitortzen du (27.2. art.). Erlijio-hezkuntzarik ez emateko ere bai, beraz.
- Hurrengo urtean, hala ere, 1979an, espainiar Estatuak Erromako Aulki Santuarekin hitzarmen bat egin

zuen eta "erlijio katolikoa ikastetxe guztietan beste edozein irakasgaiaren pare irakasteko" konpromisoa hartu zuen. Bistakoa da, hitzarmen horrek Konstituzioa ukatzen duela, interpretazioak interpretazio.

- 1980an, Erromarekiko hitzarmen hori aplikatzeko Lege Organiko bat onartu zuen Espainiako Gobernuak: zentro guztiek erlijio katolikoa irakatsi behar zuten nahi zutenentzat, eta nahi ez zutenentzat alternatiba gisa "etika" eskaini. Irakasleei Estatuak ordaindu behar zien. Protestante, ju-

du eta musulmanek ere exijituzaketen edozein zentrotan euren erlijioa irakastea, baina horretarako ikasgela bakoitzean 10 ikasle behar zituzten gutxienez.

- 1994an, Gobernu Sozialistak lege berri bat onartu zuen: erlijio irakasgaiaren ebaluazioak ez zuen baliorik izango Batxilergoko batez besteko notarako, ezta Administrazio publikoko bekak emateko ere; ordu arte erlijioaren alternatiba zen "etika"ren orde, berriz, ebaluaketarik gabeko "ariketak" eskaini behar zituen ikastetxeak.



- 2002an, PPko Gobernuak beste lege bat onartu zuen: erlijioaren ordezko alternatiba gisa, "Sociedad, Cultura y Religión" deritzan irakasgaia eman behar zen, eta askok eta askok irakasgai berri honi erlijio katolikoaren jite bertsua hartzen zioten.
- 2004an, Gobernu Sozialista berriak 2002ko legea bertan behera utzi zuen, eta 1994ko legera itzultzen zen, harik eta proposamen berria lege bihurtu arte.

“Gizarte laiko baten alde nago argi eta garbi, eta arlo guztietan”

- Proposamen berria: ikas-tetxe guztiek erlijioaren irakaskuntza ez-konfesionala eskaini beharko dute, baina ez irakasgai berezi gisa, beste zenbait irakasgairan atal gisa baizik (Historia, Filosofia, Geografia...). Nahi duenari, berriz, erlijio-irakaskuntza konfesionala eskaini behar dio (kristautasuna zein beste erlijioak, eskerik balitz). Erlijio konfesionala

nahi ez dutenentzat, zentrok ez du beste inolako arikerik eskainiko (ikasleak etxera joan daitezke, beraz, edo jolasera).

Horra Espainiako egoera. Europako beste Estatuak dagokionez, alde handiak daude batetik bestera: Frantzia ez da inolako erlijio-irakaskuntzarik eskola publikoan (Alsazian eta Lorenak izan ezik); Estatu askotan kristautasuna eskaintzen da (batik bat bederen), eskola-orduetan eta alternatibarik gabe, baina nahi ez dutenak libre gera daitezke, espresuki hala eskatuz gero (Erresuma Batua, Grezia, Irlanda, Danimarka); beste batzuetan, "derrigorreko" alternatibak (etika, filosofia...) eskaintzen dira (Alemania, Belgika, Finlandia, Italia, Portugal); beste batzuetan, erlijio askori edo guztiei aukera bera eskaintzen zaie, eskola-orduetan beti ere (Austria, Danimarka, Holanda, Norvegia); hantzen, erlijioa orokorrean ematen da (Suedia, Suitza).

3. Gizarte laikoari bai

Gizarte laiko baten alde nago argi eta garbi, eta arlo guztietan. Alegia: ez dut uste ez kristau-Elizari, ez ezein erlijio-erakunderi dagokionik gizartea arautzea. Gizarteko legeak gizarteak berak ezarri behar ditu demokratikoki, demokraziaren eskakizunak ahalik eta gehien ziurtatzen saiatuz, eztabaida libre bideratuz eta, azken batean, gehiengoaren erabakia errespetatuz. Elizak edo edozein erlijio-erakundek eskubide osoa du bere iritzia agertzeko,

baina ez bere iritzia guztientzat lege bihurtzeko. Horrek ez du esan nahi erlijioa "sakristietara" edo norberaren mundu pribatura bakarrik zokora daitekeenik. Erlijioak —eta erlijio-erakundeak— bere-berea du dimentsio publikoa, are politikoa, baina erakunde erlijiosoak ez du inolako eskubiderik bere ikuspegia edo aukerak gizarteari ezartzeko.

Erlijio-irakaskuntzari dagokionez, horrek esan nahi du eskolak "laikoa" izan behar duela. Ez, noski, laizista, erlijioaren etsaia, erlijioaren inolako presentziarik gabea. Baina bai plurala eta akonfesionala, hau da, guztiei —sinestun ala sinesgabe— aukera berdinak emango dizkiena, eta erlijio bakar baten edo batzuen interesak beste erlijioen edo erlijiorik ez dutenen gain ezarriko ez dituen.

Uste dut Espainiako Gobernu Sozialistak luzatu duen proposamena, oro har, —aurrerago aipatuko dudan funtsezko puntu bat salbu— nahiko arrazoizkoa dela: ikasle guztientzat erlijioa irakasgai gisa, baina erlijio akonfesionala; eta erlijio konfesionala ere bai hala eskatzen dutenentzat, baina eskola-orduetatik kanpo eta balio akademikorik gabe, eta nahi duten erlijio guztiei aukera bera emanez. Guztiei aukera bera ematea ez da, noski, erraza izango: herri txiki bateko eskolan musulman bat eta budista bat badira, bakoitzari bere irakaslea jarri behar ote dio Administrazioak? Milla egoera korapilotsu gerta daitezke, baina printzipioa egokia da nire ustatan: bai eskolan erlijio akonfesionalari, ez inoren pribilegioei.



4. Nor bere kulturalan kritikoki errotzeko

Gizarte laiko eta plural batean, ez da printzipioz eskolaren egitekoa erlijio zehatz baten sineskizun, arau eta erritu bereziak haurrari edo gazteari transmititzea. Baina, hori hala izanik, ez zait iruditzen erlijioak eskolatik erabat kanpo gelditu behar duenik. Erlijio konfesionalak agian bai, baina erlijioak orokorrean ez.

Duela urte pare bat, Régis Debray-k, Che Guevara-ren taldekide izanak, Frantziako Hezkuntza-Ministro sozialista Jack Lang-i aurkezturiko txosten sonatu batean, zera proposatu zion: Frantziako eskola publiko eta laikoan erlijio-fenomenoaren irakaskuntza sartu behar zela berriro, "hezkuntzaren ezinbesteko osagaia baita, eta oinarrizko irakaspen guztien luzapena".

Régis Debrayk ez zuen nahi neska-mutikoei erlijio bateko sinesteak eta arauak barnean itsasterik; ez zuen nahi gazte-oxoak kristau edo musulman edo budista bihurtzerik. Baina erlijioaren eta erlijioen berri ematea funtsezko eta ezinbesteko jotzen zuen. Zertarako? Debrayren esanetan, Errenazimenduko pintura ulertzeko, Bach-en Magnifikat-a konprenitzeko, gaurko munduan kokatzeko. Azken batean —zioen—, geure burua hobeki ezagutzeko.

Jakintzen xedea ez da "jakitea", baizik eta gizaki jator —zoriontsu eta senide— izaten ikastea, ikasiz joatea. Eta horretarako ezinbestekoa da nor bere munduan, kultural, lurrian ongi erroturik egotea. Erroturik dagoena izan daiteke libre, ez edonongo haizetara airean dagoena. Eta kritikoki erroturik dagoena izan daiteke libre, ez beste-

engandik jasotakoari beti burua makurtzen diona. Horra eskolaren zeregin sakratua: haurra eta gaztea bere kulturalan kritikoki sustraitzea.

Eta uste dut, Debray-k bezala, gure kultura partikularrean ez ezik, munduko kultura unibertsalean egiazki errotzeko, funtsezkoa dela erlijioaren eta erlijioen berri eskolan ematea. Gizadiaren historia eta kultura ez dago ulertzerik Zaratustra, Buda, Konfuzio, Jesus eta beste hainbat ezagutu gabe. Literatura unibertsala erlijio-erreferentziaz josia dago munitaraino, XX. mendera arte behintzat (euskal literatura zer esanik ez). Ez dago Oteizaren Arantzazuko eskulturak ulertzerik, "apostoluak" zer diren jakin gabe. Bach-en Nekaldia edo Mozart-en Requiem-a ez dira berdin gozaten, haien giro espiritualetan murgilduta edo

murgildu gabe (beste kontua da, norbera giro espiritual horrekin identifikatzen den ala ez).

Gure erroak dira, historiaren jatorritik beretik belaunaldiz belaunaldi datorkigun eta osatzen gaituen ondare kulturala. Historiako kultur adierazpen guztietan nabari da erlijioaren ukitua edo erlijioaren ekarria: artean eta etikan, usadioetan eta legeetan, sinesteetan eta errituetan, hilarrietan eta hilotzietan... Eta erlijio-adierazpenak hurbilxeagotik edo urrunxeagotik ulertzeko gauza ez dena ez da bere kultura barne-rik ulertzeko gauza.

Ondorioz, erlijio-gaia eskola guztietan eta ikasle guztiei ematearen aldeko naiz. Ez erlijio bat (kristautasun katolikoa,

kristautasun protestantea, islama, budismoa...) konfesionalki, baizik eta erlijioaren kultur adierazpenak orokorrean, eta adierazpen horien barne-ulerpiderako klabe nagusiak, hau da: Erljioen Historia, Erljioaren Fenomenologia eta Erljioaren Filosofia, hirurak batean. Eta, noski, erlijio-irakasgai akonfesional horrek beste edozein irakasgairen pareko izan beharko luke, irakasleen ordainketari, ebaluazioari eta abar dagokionez.

Hari honetatik, oharpen kritiko bat egingo nioke Espainiako Gobernuak aurkeztu zuen proposamenari: erlijioa aparteko irakasgai gisa ez, baizik eta Historian, Filosofian eta abar banaturiko zehar-gai gisa ematea proposatzen zuen. Ez deritzat egoki. Beldur naiz, ez ote

litzatekeen horrela erlijio-gaia arinegi eta lausoegi azalduko, hezkuntza integralaren kaltean. Uste dut erlijioak baduela aski nortasun eta berezko mami, aparteko irakasgai gisa emateko.

Sustraitu, beraz. Baina ez sustraietan itotzeko, sustraietatik biziberritzeko baizik. Kritikoki sustraitu eta neska-mutikoei bereizten lagundu zer den zanpatzaile eta zer askatzaile, zer estugarri eta zer zabalgarri, zer ilungarri eta zer argigarri. Erljioa aise bihurtzen da intolerantzia eta mendekotasun guztien berme, sineskeria eta bortizkeria guztien justifikazio. Ondorioz, edozein kultur adierazpenekiko eta edozein erlijioarekiko kritiko izatera eragin behar luke eskolak. Baina, nire ustetan, erlijioa bera da kritika-eragilerik zorrotziena ere. Izan behar luke. Egiazko erlijio-bizipena duenak ezin du inongo iritzirik, sineskizunik eta boteririk sakralizatu, absolutu bihurtu. Ezta erlijioa egiazki irakasten duenak ere.



Haritz Arregi.

5. Gizatasunaren erroak zaintzeko

Erljioa (Erljioen Historia, Erljioaren Fenomenologia eta Filosofia) eskola guztietan irakasgai gisa emateko arrazoi bat azaldu dut orain arte: haurrak eta gazteak kulturaren txertatzea eta sustraitzea, iraganeko eta gaurko kultur adierazpenak ulertzeko baliabideak eskaintzea.

Baina hori ez da guztia. Artea ez da irakasten artistak omen diren gizaki bakan batzuen obrak uler-

tzen laguntzeko soilik, artistak ikusten duena ikusten ikasteko baizik. Ikusten, gozaten, sufritzen. Bizitzen. Halatsu erlijioa ere. Nire iritzian, erlijioa irakastea ez da gaurko kulturaren antzinako erroak ezagutzeko bakarrik; ez da gure hizkuntzan oraindik bizirik dauden erreferentzia biblikoak edo Oteizaren obra hobeki ulertzeko bakarrik. Biziaren eta gizatasunaren iturbegietara bidea erakusteko ere bada —izan behar luke batik bat— erlijio-irakasgaia.

Dakienarekin, dakusanarekin, daukanarekin ez du aski gizakiak. Horregatik dira poetak, eta musikariak eta ipuin-kontalariak. Eta maitaleak. Eta justiziaren aldeko militantek. Eta mistikoak. Horretarako behar luke izan erlijio-irakasgaiak: haratago ikusteko, isiltasuna entzuteko, esanezina esateko, barnerago joateko. Den ororen arnasa arnasteko eta den ororen senideago izateko. Zergatik bizi eta zertarako bizi izateko. Oinarri arin eta tinkoetan oinarritzeko. Bakean eta konfiantzan bizitzeko.

6. Erlijioa irakatsi?

Tagore, idazle ospetsu eta mistiko handiak idatzi zuen: "Haurrei erlijioa irakats dakiekeela uste izatea, orkideari hazten irakats dakiekeela uste izatea bezalatsu da. Orkideari, izatekotan ere, lur egokia jar diezaiokegu, eta ongari suspargarria, eta behar dituen umeltasuna eta tenperatura; hortik aurrera, Naturak berak egingo du".

Sineskizunak, errituak, arauak, fundatzailearen historia... ho-

riek erakuts daitezke eta ongi dago. Baina hori guztia ez da funtsezkoena inongo erlijiotan. Ezinbestekoa izan daiteke, lurra orkidearentzat bezala, baina ez da aski. Eta azken finean ez da funtsezko. Erlijio-bizipena da funtsezkoa. Eta zer da erlijio-bizipena? Begirada berria, sentiera berria, biziera berria; askatasuna, hurkotasuna, konfiantza; harridura, begirunea, esker ona... Eta hori barruak ematen du, barruan erretzen da.

Orkideak ura eta lurra kolore eder, forma zoragarri bihurtzeko gaitasuna duen bezala, gizakiak ere barruan darama —garunean, atomoetan, zeluletan...— ikasia bizipen bihurtzeko gaitasun misteriotsua, ikusezina ikusteko eta antzemanezina sumatzeko dohaina, fededun edo poeta edo maitale bilakatzeko ahalmena. Hori ez da "erlijioa" nahiz "arte" nahiz "etika" irakaste hutsez lortzen. Gizaki orok Jainkoaren Espiritua barnean daramala aitortzen du kristauak (eta, egia esan, erlijio guztiek, modu batera edo bestera). Jainkoaren Espiritua, hau da: jainkozko argia, bizia, arnasa, edertasunaren miraria, maitasunaren beroa. Jainkoaren Espirituak gidatzen du poeta, eragiten dio militanteari, eta bultzatzen du maitalea maitearengana. Biziaren jainkozko indar misteriotsuak eragiten dio orkideari ere...

Beraz, Eliza katolikoari ez lioke axola handirik izan behar "erlijio katolikoa" eskola-orduetan irakasten ote den ala ez, eta "erlijio notek" matematikakoe bezala balio izango duten ala ez. Hortik nekez etorriko da

“Horretarako behar luke izan erlijio-irakasgaiak: haratago ikusteko, isiltasuna entzuteko, esanezina esateko, barnerago joateko”

fedea. Gaurko "fedegabe" guztiak ez ote dira, ba, euren garaian erlijio katolikoa txintxo-txintxo eskolan ikasiak?

Erlijio-gai zehatz batzuk eskolan irakastea baino askoz garrantzikoagoa da eskolak gatzetxoek gizatasuna sustrai sakonetan errotzea: edertasuna gozatzeko aukerak eskaintzea, justiziaren egarria dastaraztea, misteriora hurbilaraztea, konfiantza handian murgilaraztea... Gainerakoa berez etorriko da, Jainkoaren Espiritu unitbertsalak bultzaturik. Eta ez dio hainbeste inporta izango haur edo gazte hori "kristau" eta "katoliko" izango den ala ez... Ene Eliza katoliko horrek, ez izan beldurrik! Izan ezazu konfiantza Jainkoarengan, gizakiarengan, naturarengan! Izan konfiantza gaurko kulturari! Izan zaitez gaurko gizartearen konfiantzaren mezulari eta testigu!

Bake eta on, adiskidea, Elizaren izenean!

Berriro erlijioa bueltaka

Jalil Bárcena

Arabista eta islamologoa. Bartzelonako Institut d'Estudis Sufis-en zuzendaria

Bazirudien erlijioaren kontu hori guztiori gizakiaren iraganaldirik iluneneko kontu zaharra zela, baina orain, XXI. mendearen hasieran, gero eta zientifistagoa eta teknikoki globalizatuagoa den garaian, gai honekin bueltaka gabiltza berriro ere. Izan ere, nahi ala nahi ez, erlijioa ez da inola ere gizadiaren historiaurreko garaietan agorturiko zerbait. Aitzitik, giza gertakari unibertsala da, aspaldi-aspaldiko has-tapenetik orainaldi nahasi honetara arte bizirik iraun duena. Badirudi erlijioa giza inbariante bat dela, Raimon Panikkar miretsiak gogoko duen hitz bat erabiliz.

Erlijioak badu ezau-garri bat: setatia dela, oso setatia, eta hori gaizki uz-tartzen da gure modernitate laikoarekin, kontra-esanean baitago. Ez da erabat desagertu, baina aldi berean ez da ongi egokitzen, bere forma ofizialetan gutxienez, bizi ditugun etengabeko aldaketa- eta berrikuntza-garai hauetara. Batzuek —baikortasun inozo batek jota, greziarrek entusiasmo deitzen zuten horrek erraz ha-

rrapatuta, eta bitxia bada ere “jainkoak inspiratua” baino ez du esan nahi hitz horrek— zorionez gainbehera etorritako zerbait bezala hartu izan dute. Hala ere, hor dago berriro erlijioaren mamua, arrazoiaren loldi atsegina zapuzteko prest. Zeren eta kontua ez baita erlijioak arazo bat sortzen duela eskolarekiko —hori ere bai, las-ter ikusiko dugun bezala—; kontua da erlijioa bere horretan dela arazoa, ez baitakigu zer demontre egin berarekin.

Hasteko, agian merezi luke gogoratzea gizakia, funtsean, izaki erlijiosoa dela, homo symbolicus bat, eta ez dela mugatzen bere ingurunerik hurbilenarekin erlazonatzera truke teknologikoaren bidez, forma sinbolikoak eraikiz baizik. Jorge Luis Borge-sek zioen unibertso osoaren helmuga den hori izango dela ziur asko Jainkoa, alegia, unibertsoa bere eboluzioan bete-gingarritasunera bideratuta dagoela. Gizakiok ere Jainkoarengana jotzen dugu —gu horretaz

arekin



ohartu edo ez ohartu—, nahiz eta joera hori era askotara kanporatu gero, faktore geografiko, kultural edo psikologikoen arabera. Beraz, gauza bat da erlijioa, hau da, gizakiaren oinarriko dimentsio espiritualak, eta beste bat, nolabait esateko bigarren mailakoa, erlijio-formulazioak, norberaren sineskizunak. Horregatik, erlijioa beti bat da, erlijioak berriz asko. Adibidez, Korana bezalako testu sakratuan, erlijioa, aipatu berri dugun bezala ulerturik, beti singularrean agertzen da.

Egia esateko, gure bihotzaren sakonenean eta ezkutuenean irrika espiritual indartsua dago. Guztiok, gizon eta emakumeok, berdin daukagu berezko joera bat Jainko hitzaz izendatu izan dugun horretarako, nahiz eta denominazio orotatik haratago, askoz haratago egon. Mircea Eliadek idatzita utzi zuen bezala, jomuga espiritual hori giza

kontzientziaren parte da, eta horrek egiten du iraunkor izatea denboran eta espazioan.

Horregatik erlijioak ez du zerikusirik aparteko kokapen geografiko batekin, eta ez dio erantzuten kultur berezitasun edota gizarte-fase espezifiko bati. Bestalde, erlijioa ez da ekonomia-maila jakin baten ondorio ere; baizik eta, adierazpide hoberik ezean, giza bizitzaren sakoneko egitura dei genezakeen horri erantzuten dio.

Erljioa ikasgelan

Aurrekoak esanda, erlijioak gaur egun planteatzen dizkigun dilemetako bat, eta ez txikiena, zera jakitea da: zer leku izan behar duen eskolan, eta zer formatu espezifikoekin. Beste era batera esanda: nola erakutsi erlijioaren gertakaria gure gaztetxoenei?

Lehenik, zalantza orotatik kanpo dago erlijioak, erlijioaren gertakariak, ez lukeela hezkuntza-planetatik kanpo geratu behar. Erlijioa ezin da alferrikako gauzen edo ahazmenaren zaborte-gira bota, besterik gabe. Gizardiaren historia ulertezina da kontuan hartu gabe erlijioen ekarpena pentsamenduan, artean edo harreman komunitarioetan. Oinarriko erlijio-figurak (Buda, Zoroastro, Moises, Jesus edo Muhammad) edo espirituallak (Milarepa, Raimon Llull, Meister Eckhart, Sankara, Rumí edo Ibn'Arabi), banaka batzuk bakarrik aipatzearen, aztarna ezabaezina utzi dute munduan, baita gure bizitzetan ere, gu horretaz jakitun izan edo ez, eta beraz zentzuzkoa dirudi irakaskuntzako curriculum guztien parte izatea.

Egia da zenbait herrialdetan, Frantzian adibidez, non aspaldiko laizismo oldarkorregatik zera

erlijiosoarekin harreman zurrun-bilotsuak baitituzte, erlijio-kultura nahiz erlijio konfesionala ikasgelatik kanporatzea erabaki dutela. Izan ere, gure auzokoek uste dute erlijioaren gertakariarekin zerikusia duen guztia beste irakasgai batzuetan aztertzen dela, zeharka bederen. Hala ere, planteamendu horrek azkenean beti diluitu egiten du ikasketa-planetan erlijioa eta espirituala, eta hori erabat ezabatzen ez baldin badu, nire ustez batere desiragarria ez den gauza.

Espainiako estatuan, urteak daramatragu aldarrikatzen, indar handiz eta sarri-sarri, berehalako hezkuntza-erreformak, beti amaigabeak gertatzen direnak. Hezkuntzaren Kalitatearen Lege Organikoaren (LOCE) arabera, 2004-2005. ikasturtean, erlijioa ikasteko bi aukeraren artean hautatzeko modua izan behar zuten ikasleek. Bata konfesionala eta bestea “erlijioaren gertakaria” deitua, azken irakasgai hau historiako edota filosofiako irakasleek eman behar zutelarik. Baina hori guztia, oraingoz, ezezean geratu da. Inor ez dago erabat ados aplikazio zaila duten irakaskuntza-lege batzuekin.

Fededun familiek eta erlijio-erakundeek indarrean dagoen Espainiako Konstituziora jotzen dute, 27.3 artikulura zehazki, honela dioelarik: “Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea garantizatuko dute hauen seme-alabek hezkuntza erlijioso eta morala har dezaten beraien uste sendoei dagokien bezalaxe”. Gainerako jendeak “erlijio-kultura”ko eskolen alde egiten du, edota lekuz kanpo ikusten du erlijioarekin zerikusia duen zer-bait eskola publikoan sartzea.

Berrito diot, ez dakigu zehazki zer egin erlijioarekin.

Nire ikuspegitik, eskola publikoak ez du tribuna izan behar bertatik doktrina irakatsi edota proselitismoa egiteko. Hori guztiori familian eta erlijio-zentroetan (eliza, mezkita, sinagoga eta gainerakoetan) egin beharko litzateke. Niri neuri, sineskizuntan oinarrituriko erlijiozkotasun hori gutxi, oso gutxi, ia batere ez zait interesatzen. Oso bestelako gauza da erlijio-kultura, erlijioaren gertakaria, bere ñabardura guztiekin, askotariko era eta tankerekin. Iruditzen zait gure neska-mutikoek jakin beharko luketela geure jatorrian dugun historia. Aldi berean ikasle guztiek ulertu beharko litzukete gurekin batera bizi diren beste horien erlijio-sineskizunak, batez ere gero eta elkar lotuago dagoen gure mundu honetan.

Eskola, hezkuntza-sistema da agian tresnarik eraginkorrena herritarrak egoki gizarteratzea lortu nahi badugu. Gizarte-erakuntza demokratiko oro hezkuntzan oinarritzen da. Eskolak demokrazia-eskola izan behar du batez ere, non ez zaiGUN emango arrazoiaren ikuspegi derrotista, ezta moztu ere gizaki orok barruan daraman hegaldi espiritualerako bulkada. Demokraziak tolerantzia eskatzen du, elkar ezagutzea eta bata bestea ulertzea elkarrizketaren bidez, horren oinarrietako bat entzuteko gaitasuna delarik. Izan ere, premia-premiazkoa zaigu elkarrizketatzea, eta zer leku hoberik horretarako ikasgelak baizik. Baina elkarrizketatzea, guri mingarri gertatu arren —elkarrizketa gure ondare filosofikoaren osagait-

“Gaur egun munduan dugun eszenografiak elkarrizketara behartzen gaitu”

zat hartu baitugu— ez da batere erraza, eta ikasi egin behar da txiki-txikitatik.

Gaur egun munduan dugun eszenografiak inoiz ez bezalako, eta aldi berean ausarta izango den, elkarrizketara behartzen gaitu, ez bakarrik erlijioen eta tradizio espiritual unibertsalen artean, baita hauen eta, erlijio-formulazioetatik harantzago, gizakiaren patu ziurtasunik gabeko arduratzen diren guztien artean ere. Gaur egun gogoeta egitea besteekin batera egitea da, eta horrek esan nahi du pluraltasun handiagoaz, baina, batez ere, harrotasun gutxiagoz. Are gehiago, jakintza erlijioso eta espiritual erlijiosoaren ondare emankorra —bere bidez adierazi dituelarik gizakiak mendeetan zehar bere desirarik bikain eta sakonenak, bake-, askatasun-, edertasun- eta maitasun-grinarik gorenak— guztiona da gaur egun. Budaren errukizko ondarea ez da budistena soilik, Jesusen maitasunezko herentzia ez da kristauena bakarrik, ezta sufien jakinduriariko ondare emankorra musulmanena bakarrik ere. Zerbait berria baldin badaukagu gure garaiotan, Europako gure testuinguruan bederen, ze-

ra da: norberaren sineskizun eta formulazio moralez harantzago, espiritualtasun unibertsalak emankortu egin gaitzakeela eta bizitza bere betean bizitzen lagun diezagukeela.

Halaz guztiz, gaur egun erlijioek beren itzalei buruz ere hausnarketa egin beharra daukate. Gure garaioak ez dute onartzen zaharkitutako erlijio-ereduen miraberkeriazko imitaziorik, gizon-emaumeon duintasunaren edota, gauza bera dena, bizitzaren beraren aurkakoak baitira sarri. Horrek ez du lekurik inon, baina are gutxiago ikasgeletan, hortxe baitago jokoan gure etorkizunaren zati bat. Egia esateko, arrazoia ederra da gizakiaren fedea suntsitzen ez duenean, baina are ederragoa da fedea arrazoiarentzat higuin garri ez denean. Labur esanda, eta arazoak arazo, geure aurrean dugu gaur egun erlijiozkotasun askeagoa, ez nahitaez ezarria, bizitzeko aukera.

Gure munduak ez du onartzen gero eta konplexuagoa baina, aldi berean, ñabarduretan gero eta aberatsagoa den mundu honen irakurketa eskematikorik ez bakarturik. Joera mistiko unibertsalek, horien artean sufismo islamikoak, erakusten digute erlijioaren bizipen sakonak sorkuntza emankor eta berritua izan behar duela, eta ez inobilismo setati eta itsua. Orduan bakarrik bihurtuko dira erlijioak barne-jakinduriarako bide, eta argi pixka bat emango digute gainditzten gaituenaz, hau da, bizitzaren misterioaz.

Erljio guztiek, salbuespenik gabe, mementoren batean edo bestean eskusibismoaren tentazioa

izan dute, eta horrelakoetan handiustez, dogmaz eta dotrina hutsezinez puztuta agertu izan zaizkigu. Gaur egun badakigu ez dirrela inoren ondare ez okerra eta ez egia. Murtziako Ibn'Arabi mistiko sufiak XIII. mendean zera idatzi zuen: "Ez zaitetz atxiki erlijio jakin bati eta besteetan sinesteari utzi, Jainkoa handiegia eta bikainegia baita kredo batean itxita geratzeko". Horregatik, iruditzen zait onuragarria litzatekeela erlijio-kulturaren arlo bat sortzea, ikasle guztientzat komuna, bertan ikuspegi orokor bat eskaintzeko bai tradizio erlijioso eta espiritualena eta bai mundu-ikuskerak laikoena ere. Erljio-kulturaren irakasgai hau emango luketen irakasleak ez lirateke aukeratuko beren sineste sendoen arabera, baizik eta beren gaitasun profesionalaren arabera.

Irakaslearen oinarria, azken batean bitarteko hutsa delarik, ez da egia, hori ezin baitu ziurtatu, baizik eta ikasleengana etengabe galderak zuzentzea, aldi berean ikasleek ere galderak egin ditzaten. Irakasleak pentsagarri dena baino urrutixeago pentsarazi beharko lieke, misterioaren azken sustraiekin topo egiten dugun harainoxe, hain zuzen.

Behin baino gehiagotan esan dugu, ez dakigu zer egin erlijioaz. Eta hori, neurri batean, izan liteke ez dakigulako benetan zer den erlijioa. Agian merezi du galdetzea, berriro ere, islama edo kristautasuna, baina baita budismoa edo judaismoa ere, zenbateraino diren harantzagoko munduari buruzko erlijio-ikuspegiak, adibidez, edo ongiari eta gaizkiari buruzko formulazio moralak, edo nork eta nola gobernatu behar gaituen zehazten dutenak. Hori guztiori al dira erlijioak ala gizakiaren metamorfosia, bere kontzientziaren eta, ondorioz, bizitzaren eraldaketa bilatzen duten jakinduriak?

Gauza guztietarako erantzun zuzenak eman behar izateko pisu izugarri horretatik askatu behar dira erlijioak. Are gehiago, testu sakratu handiak ez dira errezeta moduko erantzunak edo formula errazak, baizik eta galdera gehiago. Azken batean, galderak dira, eta ez beste ezer, gizakiaren bihotza eta adimena benetan irekitzen dutenak. XII. mendeko sufi jakintsu handi batek, Abu Hamid al-Gazzalí-k, esan zuen: "Zalantza da ziurtasunera garamatzen bidea".



Jarrera ezberdinen eta euren ondorioa

Roberto Casas

Teologian eta Filosofian Lizentziaduna eta "Begoñako Andra Mari" Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea

Erljiioak hezkuntzan eduki behar duen presentziari buruzko eztabaida ikasgai konfesionalari buruzkoa da, gehienbat. Materia konfesional baten presentzia funtsatzeko bi argudio mota aipatzen dira: lehenik marko juridikoa (Espainiako Konstituzioa eta Eliza eta Estatuaren arteko hitzarmenak) eta, bestalde, hezkuntza integrala. Lehenengo justifikazioak legeen indarra dauka baina arrazoi historikoengatik existitzen denez, garai batean arrazoigarria den akordioa beste momentu historiko batean bertan behera utz dezakete. Bigarren argudioa, aitzitik, gehienek konpartitzen duten heziketa-printzipio honetatik sortzen da: hezkuntzak pertsonaren berezko dimentsio guztietara heldu behar du. Baina dimentsio horiek zeintzuk diren zehaztu nahi dugunean gatazka sortzen da. Hau da, zein antropologiatan oinarritzen garen eta antropologia horretan zein leku dagokion erljiioari, horren arabera beste modu batean planteatuko da erljiioaren lekua eskolan. Eta oinarri antropologiko hori ikasgai konfesionala onartzerakoan ez ezik, erljiio fenomenoak curriculumean zer-nolako presentzia eduki behar duen zehazterakoan ere oso eragingarria da.



Oihana eta Xabier Arregi.

antropologikoak



Oso jarrera ez-berdinak aurki badaitezke ere, hiru planteamendu funtsezkoetan bana daitezke. Jarraian aztertuko dut zeintzuk diren planteamendu horiek eta nola eragiten duten eskolan erlijioaren gaia bideratzeko moduan:

- Batzuen ustez gizakia, berez, animalia erlijiosoa da. Eskolak, horrenbestez, erlijiotasuna hartu behar du bere baitan, ez datu historiko edo kultural gisa soilik; dimentsio erlijiosoan, gizakiaren berezko dimentsio guztietan bezala, eskolak ikasleari heltzen lagundu behar dio. Iritzi honetakoez azpimarratzen dute gizakiaren dimentsioak (erlijiosoa barne) ez direla modu abstraktuan garatzen, tradizio edo testuinguru sinboliko zehatzen bitartez baizik. Adibidez aukera etikoak, nazionalak edo erlijiosoen

zehaztasunak ez dira erabakitzen heldutasunean, aderebes, jaiotzeko momentu beretik pertsona inguratzen duten giro guztiek, neurri handiago ala txikiagoan, dimentsio horietan eragiten dute. Hortik ondorioztatzen dute pertsonaren aspektu bat testuinguru zehatz batean garatzen ez bada ihartua geratzeko dela. Horrek ez du ukatzen beti aukera bat uzteko eta beste bat hartzeko libre garenik, esan nahi du soilik gure pertsonalitatea errealitate konkretuen bitartez (ez kontzeptu abstraktuen bitartez) garatzen dela. Zein presentzia mota dagokio erlijioari hezkuntzan iritzi honen arabera? Guztion ikuspuntuak hartzen dituen planteamendu orokor bat bilatu beharrean, hiritar-kopuru nahikoa duen tradizio erlijioso bakoitzari espazio propioa eman beharko litzaiotke hezkuntza-siste-

man, eta maiz hori gauzatzeko da aparteko ikasgai baten bitartez. Jarrera horrek arazo bat dauka, ez daki zer egin erlijioaz aparte bizi denarekin, edo kontu faltsu eta kaltegarritzat hartzen duenarekin; horrelako iritziei leporatzen diete gizakiaren berezko eta oinarritzko aspektu bat moztzen dutela.

- Badago beste perspektiba bat adierazpen esentzialak egitea gustuko ez dena. Dena den, ohartu dira erlijio gertakaria historian zehar aniztasun kulturalaren erdian etengabe presente egon den non-nahiko errealitatea dela. Are gehiago, ikerketa zientifikoaren aparteko objektua da, bere berezitasun propioekin. Izan ere, aparteko gertakari hori "erlijioen zientziak" izeneko espezialitate zientifiko batek ikertzen du, bere premisa eta metodologia pro-

ezartzeak ez zuen biltzen ikasleek erlijioaren berri edukitzea eta bere garrantziaz jabetzea soilik, pertsona guztiek edukiko zuten dimensio transzendentean heltzen laguntzea baizik. Horregatik oinarritzen ziren sinesbide erlijiosoetan ikasgai osoaz arduratzeko eta, konfesio zehatz batekiko atxikimendurik ez zeukate nenei, helburu berberak zituen aukera ez konfesional bat eskaintzen zitzaien. Proposamen horren aurrean, bigarren eskema antropologikokoek pentsatzen zuten erlijioaren hezkuntzako ardua osoa ezin zela utzi talde erlijiosoen esku, eta hirugarrenekoek uste zuten proportziorik gabeko tamaina eman ziotela heziketa erlijiosoari.

- Bestalde, PSOEk proposatzen duena¹ beste muturrera joan bada ere, berriro, aukera guztien orekatik oso urrun dago. Antza denez proiektu hori hirugarren eskema antropologikoko printzipioei jarraituz eratuta dago: erlijioak inolako tratamendu berezirik ez merezitzeaz gain, aldi berean legea bete nahi dute eta korronte erlijiosoen presentzia (lege horiek bermatua) ezabatu nahi dute. Hori lortze-



ko erlijioa alternatibarik gabeko ikasgai bihurtu nahi dute. Begi-bistakoa da oso ikasle gutxi daudela prest besteek baino materia bat gehiago ikasteko.

Ageri denez, behin betiko irtenbide egokia lortzetik oso urrun gaude. Dena den, hantzenka seriotasunez eta guztion sentsibilitateak errespetatzen saiatuz arazoa konpondu nahi duten proposamen interesgarriak entzuten ari dira azken hilabeteotan. Batzuek erlijioari buruzko ikasgai berezi bat planteatzen dute: materia

horren ordu-kopurua bere garrantziari egokituta egon beharko litzateke² eta Hezkuntza Administrazioak ezarritako curriculum komuna eduki beharko luke. Hala ere, sinesbide erlijiosoek euren espazio propioa eduki dezakete (ehuneko batean edo bestean), baldin eta ikuspegi zientifiko komuna oztopatzen ez badute. Beste batzuek mundu-ikuskerara edo bizitzaren zentzua eratzeko prozesuarekin zerikusia duen guztia hartzen duen ikasgai bat proposatzen dute. Horretarako erlijioa erreferentzia inportante bat da. Munduari zentzua emateko prozesua ez denez abstraktua, hemen ere konfesio erlijiosoek hutsune propioa izan dezakete.

Konklusio gisa, argi dago posibilitate asko daudela, baina erlijioaren hezkuntza inposiziotik eta jarrera erradikaletatik antolatuta nahi izan dutenak arrisku-tsu eta onartezin agertu dira. Azken finean, aurkezten den edozein proposamenek hiru kontu hauek errespetatu beharko litzuzke: arlo honetan dagoen aniztasuna, bete beharreko legeak eta seriotasun akademikoa. Espero dezagun, bada, legealdi honetan hainbeste gatazkaren iturri izan den arazo honek, behingoz, soluzio onargarri bat aurki dezala.

(1) Beste gauza bat da Gobernuak zer egingo duen. Hemen Alderdia eta Gobernuak separatuta agertzen dira, eta jarraian aurkeztuko dudana PSOEk gobernuari eskatzen diona da.

(2) Ikasmaita guzti-guztietan egotea gehiegikeriatzat hartzen da.

“Gizalegea¹ eta bizi-zentzuaren irakasgaiari buruzko

Bizi-zentzuaren irakasgaiari buruzko

Carlos García de Andoin eta Fernando Vidal Fernández

“Cristianos en el PSOE” taldekoak



Erljioaren irakasgaiaren inguruko eztabaida publiko luzea kualitatiboki desberdina den irtenbide batez bakarrik konponduko da, eta ez aspalditik dakargun planteamendu bipolarraz. Hogeita hamar urtez dirauen polemika honen egoera kontzeptu-aldaketaz bakarrik gaindituko da, ez komenientziaz edo indarrak birbanatuz. Eta konponbide horretara ikuspuntua aldatuz bakarrik iritsiko gara. Orain arte eztabaida irteerarik gabe dago identitateen legitimazioari buruzko puntuan; benetan, ordea, “bizi-zentzuaren irakasgaiak” (Erljioa nahiz Gizalegearen Balioetan Heztea) deitu genitzakeen horiei buruzko eztabaida anomiazko gizarte-arazo bati erantzutea da, azken aldiaren areagotzen ari den arazo bati, alegia.

Premia berriak haurren eta nerabeen egoeratik

Haurren eta nerabeen artean egoera berria dago, arazoaren agenda eta konponbideen pro-

grama aldatzen dituen. Haurren kultura eta egoerak azken hamarkada hauetan izandako bilakaerak eta gure ingurunean aurreikusten diren joerek egoera berri bat adierazten digute, eta horren ezaugarriak dira: haurren autonomia

handiagoa eta soziabilitaterako komunitate primario txikiagoa beren inguruan. Bi ezaugarri hauek askatasun-maila handiagoak ahalbidetuko lituzkete, baina subjektua bera eraikitzeko, balioak pertsonalizatzeko eta zentzua eraikitzeko proze-

(1) Gizalegea: gaztelaniaz “ciudadanía” erabiltzen da, baina testuinguru honetan euskaraz hiritartasun/herritartasun terminoak ez nau asetzen. “Herritar heziketa”, beharbada? Beste zerbait egokiagoa zabaldu bitartean, baliagarria iruditzen zait sustrai sakoneko euskal hitz hau, Euskal Hiztegiaren I. Sarasolak ematen dion adieran: “Gizartean bizitzeak ezartzen dituen jokabide-arauen begirunea” (Itzultzailearen oharra).

entzua” irakasgaia.

o proposamen integratzailea

sua hauskorrago ere bihurtzen dute. Labur esanda, bizi ditugun arazo berriek zentzu bat eraikitzeari eta solidaritatearen praktikari eragiten diete pixkanaka, baina baita subjektua eratzeko baldintzei eurei ere.

Testuinguru horretan, ikastetxeek areagotu egin behar dute subjektuak hezi eta prestatzeko eginkizuna. Eta hori gizarte-egoera berezi batean egin behar dute: hurbileko sozializazio-agentziei (familiar, eskolari, elkarteei) subjektuaren dimentsiorik sakonenetara jotzeko eta horietan lagun egiteko zilegitasuna kendu zaienean, eta aldi berean kontsumoko publizitate-agentziek gu moldatzeko gero eta aginte gehiago dutenean. Horren aurrean, eskola gero eta gehiago agertzen da gune zibil bat bezala subjektuei laguntzeko, familiekin batera, pertsona eta hiritar gisa beren eraketa integrala lortzen. Gero eta sarriago, eskola izango da leku bakarra,

non subjektu askok gizalegeari eta bizi-zentzuari buruz heziketa hartu eta hausnarketa sistematikoa egiteko lekua aurkituko duten. Erronka kualitatiboa planteatzen den garaiotan, eskolak arazo nagusietan eragingo duten estrategiak zertu behar ditu, eta solidaritateari, gizalegeari eta bizi-zentzuari

buruzko hezkuntza parte-hartzailea eman behar du.

**Erljioa eskatzea
zentzua eskatzea da**

Hamarkada luze batez ezegonkortasun instituzionala pairatu



ondoren, gehiengoak behin eta berriro erlijioaren irakasgaia eskatzea honela interpretatu behar da bere esanahi sakonean: gizalegearen balioetan eta bizi-zentzuari buruzko gaietan ikasleak hezteko eskaria dagoela. Erlijioaren irakasgaiari buruzko eztabaida bipolarra ez doa arazoaren gakora, identitateen norgehiagokara baizik. Eztabaida hauek gero eta zaharkituagoak dira, bizi dugun garaia eztabaidak lekuz aldatzen ari baita: identitateen justifikaziotik zentzuaren bilaketara. Beraz, gobernuek eta eragile zibikoek benetan hartu behar dute sakoneko eskaera, eta sakoneko proposamen batekin erantzun, gizalegean eta bizi-zentzuan hezteko arloan esku hartzen duten aktore guztiak erantzukizun honetan partaide bihurtuz.

Zeharkakotasunaren inspirazioa eta muga

Aitortu beharra dago LOGSE-k esku-hartze aitzindaria planteatzen zuela balioen arloan zeharkakotasunaren eta ikas-tetxeetako hezkuntza-proiektuen bidez, eta hori aurrerapauso historikoa izan zen; baina halaber ohartu behar dugu eredu horrek, ez bakarrik bere implementazioak, funtsezko mugak izan dituela hiru norabidetan, gainditu behar diren mugak. Lehenik, zeharkakotasunari curriculumean irakasgai esplizitu batzuk gehitu behar zaizkio, gizalegearen eta bizi-zentzuaren gaia sistematikoki tratatuko dutenak, horrela, gerta litekeen zehar-barreiatze posiblea saihestuko litzateke

bere osotasunean interpretatuko lukeen hausnarketa sistematikoaren bidez. Bigarren, erlijioaren irakasgaiaren inguruan agerian edo ezkutuan dagoen gatazka gainditu behar da, eta ez sortu ikasleen artean dualtasun gatazkatsurik. Horren haritik, gizalegearen eta bizi-zentzuaren arlo horretan curriculumeko esku-hartze osoa integratuko duen eredu behar da. Heziketa paraleloa, loturarik gabekoa eta gatazka-tsua mantentzeak kalte egiten dio solidaritate, gizalege eta bizi-zentzuari buruzko hezkuntzaren osotasunari. Hirugarren, gauzatu izan den ereduak mugak erakutsi ditu bere eraginkortasun sozializatzailean, eta garbi geratu da esku-hartze konplexuagoa behar dela, sortzen diren prozesuetan ikasleek era praktikoa berengana ditzaten eman nahi zaizkien edukiak.

Nahasmenetik irteteko, erradikalizatu beharra dago kulturaren nozioa

Azken batean, uste dugu LOGSE beldurti edo herabe izan zela bere erreforma-aukeran, eta sustraietara eraman behar dela haren jatorrizko intuizioa. Subjektua eratzeko egituraren eta prozesuaren ideia konplexuagoa behar da hobeto esku hartu ahal izateko. Kontzeptu bakartuen multzoak (balioek, gizalegeak edo konfessio erlijiosoa) ez du pertsonaren kultur egitura bere osotasunean jasotzen. Kultura errepresentazio-sistema baten narra-

zioa da, balioak, sineskizunak, sentimenduak eta praktikak egituratzen dituen zentzu batean kontaktzen dituen, eta subjektuak historian duen lekua ematen duena. Kultura ez da bakarrik jakintza-multzo bat, baita gizartearen konplexu integral bat ere, jakintza guztiak moral, sineskizun, emozio eta praktikei buruzko orientabideekin batzen dituen gizabanakoak bere buruari ematen dion zentzuan. Bizi-zentzua aipatzen dugunean ez dugu esan nahi ezagutza transzendental, baizik eta balio, sineskizun, sentimendu eta praktikei buruzko eduki guztiak beren osotasunean hartzen ditugu. Zentzua kultur kategoria guztiak (identitatezkoak, moralak, sineskizunei buruzkoak, etab.) egituratzen dituen kontzeptua da, eta gizabanakoak horiekien orientatzen du Historian duen jakintza, posizioa eta jardura. Balioak ongiaren, moralaren eta —moralen hausnarketa konparatua den— etikaren dimentsioari dagozkie.

“Gizalegearen
eta bizi-zentzuaren
arlo horretan
curriculumeko
esku-hartze osoa
integratuko duen
eredua behar da”

Sineskizunak egiaren eta egiaztatzeko sistema desberdinei dagozkie. Sentimenduak emozio-antolamenduari eta emozio kognitiboen dinamikei dagozkie. Praktikak praxiari buruzkoak dira, ekintzaren oinarritzko ereduari eta filiazioa, anaitasuna, adiskidetasuna, bizimodua... bezalako erlaziorari.

Subjektuaren kultur heziketan esku-hartzeko eredu asko dimentsioetako bat bakarrari ematen dio lehentasuna, eta ondorioz pertsonalizatzea ez da behar bestekoa. Subjektuaren kultur kategoria guztietan esku hartu behar da. Balioetan bakarrik esku hartzen bada, moralismo-akatsa dago. Sineskizunetan bakarrik esku hartzea ikuspegi fideista edo ideologikoa da. Sentimenduetan bakarrik esku hartzea ikuspegi estetizista da. Praxian bakarrik esku hartzea ikuspegi aktibista da. Joera horien aurrean, zentzuaren transmisioaren paradigma integrala behar da.

**“Gizalegea eta Bizi-zentzua”
proposamenaren muina**

Proposamenaren muina hau da: GIZALEGEEA ETA BIZI-ZENTZUA deituriko irakasgaia eratzea, gero hori askatasunez aukeratu ahal izango diren irakasgai berezien bidez ikasteko modukoa. Aukera generiko batek gaiaren ikuspegi akonfesionala (plurikonfesionaltasuna barne duena) emango luke. Arlo honetan beste irakasgai



batzuk gai berbera ikuspegi konfesionaletik aztertuko luke. Honela, GIZALEGEEA ETA BIZI-ZENTZUA irakasgai generiko bezala ikasiko litzateke, edo nahiago izanez gero, irakasgai konfesionalen bidez (katolikoa, islamdarra, ebanjelikoa, ortodoxoa, etab.). Irakasgai bakarra izango litzateke, bi curriculum-modalitate edo gehiagokoa berezitasunak kontuan hartzeko.

GIZALEGEEA ETA BIZI-ZENTZUA irakasgaiak hiru helburu izango lituzke: zentzu-sistemak eta horiek hiritartasunean duten proiektzioa kritikoki eta esperimentalki aztertzea. Lehenik, aztertzea: bizi-zentzuari buruzko kultur eta erlijio-sistemen edukiak transmititzea. Bigarren, kritikoki: eduki horiek errealitatera egokitze moduak konparatu eta bereiz-

tea era parte-hartzailean. Hirugarrena, esperimentalki: gizalegea eta bizi-zentzuaren esperientziekin harremana bultzatzea eta ikasleak, banaka edo taldean, egin ditzala saioak edo proiektu praktikoak.

Bada beste zera berri bat. Irakasgai bakarra izango litzateke, bere berezitasunean ikasteko modukoa, baina bi taldeek zati edo modulu komun batzuk izango lituzkete, elkarriketatu eta ikuspegiak partekatu ahal izateko. Modulu komunek irakaskuntza-denboraren 1/5 hartuko lukete (hau da, hamar eskola-ordutatik bi izango lirateke komunak), modulu horiek departamentutako antolatuko lirateke, eta (banaketa konfesionala dagoen kasuetan) talde desberdinen ardura duten irakasleek elkarrekin emango lituzkete eta bakoitzak bere

ikasgaiko ikasleak ebaluatuko lituzke.

GIZALEGEEA ETA BIZI-ZENTZUA irakasgaiak gaien enbor-curriculum bat izango luke (natura, existentzia, familia, bakea, erantzukizuna, solidartatea, adiskidetzeta, etab), eta irakasgai konfesionalek ere sartu beharko lituzkete gai horiek beren curriculum konfesionalean; baina iruditzen zaigu ondo egin daitekeela hori, esperientziak erakusten duenez, erlijioaren irakasgaie-tan indarrean dauden ikasketaplanek luze eta zabal lantzen baitituzte horrelako gaiak.

Batzuek argudiatuko dute proposamena pedagogikoki egituratzeko zailtasun teknikoa dagoela. Nola ulertu "irakasgai" bat bi "irakasgai" edo gehiagoren bidez ikas daitekeela, eta ez direla "multzoak" soilik, bai-

zik eta "irakasgai" formalak? Nola sortu partekatutako zatiekin proposamen komun bat antolatuko duten departamentuak? Gauza bat beharrezkoa eta ezinezkoa denean, jokorauak aldatu behar dira hori egingarri bihurtzeko. Teknika eta hezkuntza aldetik hori egin daiteke, nahiz eta askok beren usadio eta aurreiritziak aldatu beharko dituzten.

Biratzte pedagogiko narratiboagoa eta esperientzialagoa

Legeetan lehenengo aldiz LOGSEk jaso zuen pedagogia aktiboaren printzipioa onartuz, batez ere praktiketarako hain egokia izan litekeen GIZALEGEEA ETA BIZI-ZENTZUA irakasgaia bezalako arloan, hau metodologia bikoitzaz emango

da: narratiboaz eta esperimentaz. Narrazio-pedagogiak zorrotz, printzipio zientifikoetan oinarrituta, transmititu eta bereizi nahi ditu zentzu-sistemak, baina horiek kontatzeko era desberdinak erabiliz, honela adin desberdinetara egokituz. Horrela, lehen mailako irakaskuntzan gehiago erabiliko litza-teke narrazio, figura eta esperientzietara hurbiltzea, zeharkakotasunaren printzipioa erabiliz beste irakasgai askotan egiten den bezalaxe. Bestalde, pedagogia esperimentalak zera bilatzen du: ez egotea zentzu-sistemaren transmisio hutsa, baizik eta ikasleak, era parte-hartzailean, banaka edo taldean, dauden gizalege eta bizi-zentzuaren esperientziekin (adibidez, GKE bateko boluntarioekin) elkarreraginez jardun dezala, eta proba ditzala horretaz berak dituen formulazio edo proiektuak.

Gizarte zibilaren parte hartzea ezinbestekoa da. Helburuak gauzatzeko, eta konfesioek eurek ematen dituzten erlijio-irakasgaiei aplikaturiko printzipioari jarraituz, gizarte zibileko aktoreak (auzokoak, elkarteak, etab.) irabazi-asmorik gabe ikastetxeekin egindako hezkuntza-hitzarmenetan kontraparte izan daitezke, hezkuntza-esperientziak edo proiektuak garatzeko GIZALEGEEA ETA BIZI-ZENTZUA irakasgaiaren curriculum-esparruaren barruan. Adibidez, GKE baten bakerako hezkuntza-programa irakasgaiaren egituraren txerta daiteke, ikastetxearen proiektuak horretarako bide eman ahala.

Irakasgai hau garatzeak ikastetxearen ikasketa-proiektua



**“Gizalegea eta bizi-
zentzua irakasgaia
derrigorrezko
irakaskuntzako eta
batxilergoko
ikaslearen eskola-
ziklo osoan emango
litzateke”**

berritzea eskatuko du, hortik egingo baita irakasgai honen curriculum-aplikazioa. Irakasgai honek irakasleak berriro prestatzea eskatuko du irakasgai hau emateko beharrezko trebetasunak izan ditzaten, baita berezitasun konfesionale-

an emango duten langileen prestakuntza ere, eta hortaz hauen prestakuntza eta izendatze-baldintzak negoziatu egin beharko dira berriro.

Arazo hau hain garrantzitsua bada, irakasgai hauek erdi-erdian jarri behar dira

Azkenik, legelariak aurre egin nahi badiote belaunaldi bakoitzaren heziketan nagusi den gaiari, hau da, bizi-zentzuaren eta gizalegearen proiektuaren transmisioari, koherenteak izan eta hezikuntza-sistemaren erdi-erdian jarri behar dute hau. Erantzukizunez, GIZALEGEA ETA BIZI-ZENTZUA irakasgaia derrigorrezko irakaskuntzako eta batxilergoko ikaslearen eskola-ziklo osoan emango litzateke; irakasgaiak ebaluagarria eta konputagarria izan beharko luke, subjek-

tuaren heziketaren berezko zatia baita; eta irakasgai hau arinkeriaz hartzeko arriskua saiheste aldera eta hain zuzen ere gizarteak, haurrek eta ikastetxeek aurrera egiteko funtsezko gaitzat hartzen denez, irakasgaiari, eskola-orduen barruan sartzeaz gain, lehentasuna ere eman behar zaio, onena izan litekeen ordutegia bilatuz.

Baliteke gobernuak eta eragileek negoziazio on baten bidez korporazio-eskaerak konpontzea bizi-zentzuaren irakasgai buruz. Gure ustez, erantzun konplexuago, arduratsuenago eta demokratikoa goaz bakarrik konpondu ahal izango dira gizartearen premiak. Eta uste dugu proposamen honek betetzen dituela horretarako baldintzak eta irtenbide bat ere ematen duela; baina gauza bat argi utzita, hau edo beste bat izan, irtenbidea bilatzeko jakinduria eta ausardia behar direla.



Erlijioa eta es

Luis Gómez Llorente

Filosofiako katedraduna



Erlijioaren irakaskuntzaz gauza interesgarri asko esan daitezke bere esanahi pedagogikoaren aldetik. Baina artikulu honetan ez da gaia ikuspegi horretatik aztertuko, eta hori ez da zabarkeria gisa interpretatu behar, eta are gutxiago benetan garrantzitsuagoa dena mespretxatzea bezala¹. Baina lan bat egiteko eskatzen didatenean, argitaratzaileari galdetzen diot ea zein ikuspegi interesatzen zaion batez ere, eta horregatik bakarrik mugatu naiz kasu honetan gaiaren alderdi juridiko-politikora.

(1) Ikus Gómez Llorente, "El papel de la religión en la formación humana" in Iglesia Viva, 2000ko apirila-ekaina.



eskola, gaur

Erlijioa konstituzio-itunean

Erljioak gaur egun eskolan duen egoera 1978ko konstituzio-itunean erabakitako hartan oinarritzen da.

Lau ziren Konstituzio berria iraunkorra izateko adostasunez erabaki beharreko gai delikatuak: Monarkia/Errepublikak dilema, Estatuaren lurralde-antolaketa (zentralismoa v. federalismoa), erlijioaren gaia (konfesionaltasuna v. laikotasuna) eta sistema ekonomikoaren oinarriak (plangintza eta interbentzionismoa v. merkaturak).

Hori gogoratzea komeni da, ez ahazteko sakontasun handiko arazo baten aurrean gaudela; baita ere gogoratu behar da nola izan zen posible adostasunera iristea: lehenik, hark huts egin ez dezan gatazka eta ezinikusi zaharrak berpiztuta; bigarren, adostasun hura lortzeko metodologia, oraindik baliagarri izateaz gain, oinarritzko akordio haren arauketa edo aplikazio praktikoa era askiesgarrian eta iraunkorrean konpon lezakeen bakarria delako agian.

Erljio-arloko konstituzio-ituna tratu edo transakzio bat izan zen. Batzuetan ahaztu egiten zaigu adostasun politikoak tratua esan

nahi duela, batez ere erlijioaren legezko estatutua bezalako gaietan, non printzipio-kontuetan ideologia antagonikoak baititugu abiapuntu. Horregatik, edozein ideologiatako fundamentalistek edo integristek higuina diote adostasunari. Hala ere, bake zibilak zerikusi handia du bizikidetzarako zentzuzko itunak adostera iristeko alderdiek duten gaitasunarekin.

Erljioari buruzko konstituzio-itunari dagokionez, zertzelada batzuk baino ez ditut emango bere hezkuntza-dimentsioaz, hemen daukagun lekua mugatua baita. Carta Magna-ren 27. artikuluan daude, 10. artikulurekin (Nazioarteko Itunen aipamena) eta 20. artikulurekin (katedra-askatasuna) lotuta, guri interesatzen zaigunaz xedapenik esanguratsuenak.

Erljioaren presentziak eskolan bi alderdi ditu, argi eta garbi aztertu zirenak: eskola konfesionala, eta erlijioaren irakaskuntza konfesionala ikastetxe publikoetan. Ez da ahaztu behar II. Errepublikako Konstituzioak (1931) eskola publikoaren izaera laikoa ezarri zuela (47. art.) eta erlijio-ordenei industrian, merkataritzan eta irakaskuntzan jardutea debekatu ziela (26.4 art.). Ez ahaztu, beraz, laizismo erradikala gupidagabea dela bai eskola konfesionalarekin eta bai erlijio-

aren irakaskuntzarekin eskola publikoetan.

Dena den, 1978ko Konstituzioak irakaskuntza-askatasuna ezarri zuen (27.1), hau da, edozein herritarrek askatasunez ikastetxeak sor ditzakeela, eta horrek irakaskuntza pribatua, berdin dio konfesionala izan edo ez, bermatzen du, eta ez hori bakarrik, gainera bidea irekitzen du ikastetxe horiek Estatuak diruz lagundu ditzan hezkuntza-itunen bidez: "Botere publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten ikastetxeei lagunduko diete" (27,9).

Estatuaren ikastetxeetan erlijioaren irakaskuntza konfesionalari dagokionez, izango zela erabakitzeko, baina borondatezkoa izango zela, nahi zutenentzat bakarrik. Honako formula hau ere erabili zen: "Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea garantizatuko dute haien seme-alabek hezkuntza erlijioso eta morala har dezaten, beraien uste sendoei dagokien bezalaxe" (27,3).

Halaber, gogoratu beharrekoa da xedapen hauen babesean, eta itunpeko ikastetxeei zegokienez LODEren babesean, ikastetxe konfesionalen sare zabal bat, inoiz ez bezalako, garatu eta finkatu dela, eta adibidez Madril eta Bartzelonan ikasle gehienak berenganatzen dituztela. Sare

horrek bere guraririk kutuneneta-ko bat lortu berri du: itun edo hitzarmen sistema hori haur-eskolara ere zabaltzea.

Beraz, ez da ahaztu behar gaur egun erlijioaren irakaskuntzaz eztabaidatzen dugunean eskola publikoan, onik eta eztabaida horretatik kanpo uzten dela eskola konfesionalen sare indartsu baten estatusaren eztabaida, Estatuaren diruz finantzatua dagoelarik, baita ere erlijio-irakaskuntza konfesionala ikastetxeetan eskaintzea nahitaezkoa dela; hain zuzen ere, Estatuak 101 milioi euro bideratuko ditu 2005ean erlijio-irakasleen soldatak ordaintzera, Eliza Katolikoaren hierarkiak proposaturiko irakasleak direlarik.

Datu horiek ahazteak, edota isilpean utzi eta maltzurkeriaz ezkutatzek, justifikaziorik gabeko biktimismo-jarrerak bultzatzen ditu, eta horrela erlijioari eskola publikoan eman nahi zaion estatusa batera ezina da gizarte pluralistarekin eta sinesle ez direnen kontzientzia-askatasunari zor zaion begirunearekin.

Jarrera laizistetan amore emanenez —beste gauza askotan ere amore eman behar izan baitzen Espainian demokrazia formala lortu ahal izateko— ezkerrek konpromiso bat onartu zuen Parlamentuan 1978an: erlijioaren irakaskuntza konfesionala egotea ikastetxe guztietan, nahiz eta hori borondatezkoa izango zen. Ordudanik —eta mende-laurdena baino gehiago igaro da— ezinezkoa izan da ados jartzea borondatezotasun hori behar bezala arautzeko.



Esan dezagun argi eta garbi: 1978az geroztik eztabaidatzen dena erlijio-eskolarik nahi ez dutenentzako erregimena da: zoriarekiko "alternatiba". Hemen ez da eztabaidatzen eskatzen dutenek erlijio-eskola izatea; hori bermatuta dago a priori. Hemen eztabaidan dagoena da ea betebeharrak gehigarriak eta ezohikorik izango duten nahi ez dutenek, erlijio-eskoletara joan nahi ez izate hutsagatik, alegia.

Horixe da, argi eta garbi esanda, eztabaidaren funtsa eta muina, nahiz eta asko mozortzen saiatu nahitaezko "alternatiba", honek izan ditzakeen formak berehala aztertuko ditugularik.

Ebaluazioa, ordutegiak, erlijio-irakasleak kontratatzeko araubidea, etab. arazo txikiak dira guztiak, eta neurri batean funtsezko arazoaren —erlijio-eskolen borondatezko izaeraren— ondorio hutsak.

Erljioaren irakaskuntza konfesionala guztiz borondatezkoa izatea da funtsezkoa, hortxe gauzatzen baita sinestunen eta sinesgabeen kontzientzia-askatasuna, eta benetako erlijio-askatasuna.

Azken hogeita bost urteotan Eliza Katolikoaren hierarkia, eta bere bozeramale politikoak, honetan ahalegindu dira: erlijio-eskoletara joan nahi ez duten ikasleek beste ikasgai bat izan dezatela, ahal bada ebaluazio eta guzti, horretatik salbuetsiz erlijio konfesionala hartzen duten ikasleak. Hierarkiak ez du ulertu nahi erlijio-eskola konfesionalak hartzea legeak bermaturiko eskubidea dela, baina batzuk eskubide horretaz baliatzeak ezin diezaiekeela besteei inolako betebeharririk sortu.

Ez da onartu nahi erlijioaren irakaskuntza konfesionala borondatezko plus bat dela, eskola-curriculumak guztientzat ezartzen duen heziketa edo prestakuntzari

gaineratua, eta fedeari eta ohiturrei buruzko irakaskuntza denez bete-betean kontzientzia-askatasunaren eremuan sartzen dela — hau ere Konstituzioak bermatua—, eta Estatuak debekatuta duela bai nahitaezko gisa ezartzea eta bai komuna ez den beste ikasgai bat zigor gisa ezartzea, hau da, erlijio-eskolarik nahi ez dutenak “zigortzeko” pentsatua.

Hierarkiak dioenez, erlijiozale ez direnentzat alternatiba gisa nahitaezko ikasgairik ez bada, erlijioa ikasten dutenek diskriminazio negatiboa jasaten dute, besteek baino gai bat gehiago ikasiz, eta honek nolabait ere kalte egiten dio beren aukera-askatasunari. Eta egia da besteek baino ikasgai bat gehiago izango dutela, baina baita ere egia da hori askatasun osoz eurek eskatu dutelako daukatela, beren biziri zentzua ematen dioten ideiak gehiago eta hobeto ezagutu nahi dituztelako, eta aukera (pribilegio?) hori ez zaiola ematen existentziaren zentzuari buruzko beste ezein filosofia edo sineste-sistemari.

Zentzugabe samarra da esatea bereizkeria dela borondatezko eta doako irakaskuntza gehigarria hartzea. Hobeto esanda, sinesteen aldeko diskriminazio positiboa dela esan beharko genuke. Halaber, inkongruente samarra da erlijioaren erabateko borondatezkotasunaren beldur izatea, aldi berean harro ari bagara esaten guraso gehienek nahi dutela beren seme-alabek erlijio hori hartzea. Horrela baldin bada, bakean utz ditzagun nahi ez dutenak, eta errespetatu dezagun hauen askatasuna ere, fedegabe izateagatik zamarik ezarri gabe.

“Fedegabe batek duda egiten badu bi Itunez, ez dago horregatik zertan zigortu herritar kaltegarri bezala” (J. Locke, “Tolerantziari buruzko gutuna”, 1689).

Konstituzioak erlijioaren aldeko erregimen berezi hori ezartzen du, eta hezkuntza-legeek garatu egin dute horretarako Estatuarekin Hitzarmenak eginda dituzten erlijioen erreferentziarako. Baina Konstituzioak ez du ezer esaten erlijioaren irakaskuntza konfesionalik nahi ez duten ikasleekin egin beharrekoaz, eta zentzuzkoa da pentsatzea beren askatasuna horrela erabiltzeagatik ez zaiela gainera inolako betebeharrak gehigarrikeriko.

Konstituzioa da gauza bat eta oso bestelako kontua 1979. urtean izenpetutako Itunak Espainiako Estatuaren eta Vatikanoren artean, eta batez ere, irakaskuntzari eta Kultur Gaiei buruzko Ituna, zorigaitzeko II. artikularekin, honela baitio: “Eskolaurreko, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (OHO), Batxilergo Bateratu Balioanitzeko (BBB), eta Lanbide Heziketan adin bereko ikasleei dagozkien Graduetako hezkuntza-planetan erlijio katolikoaren irakaskuntza sartuko da ikastetxe guztietan, oinarrizko beste ikasgaienarekin pareka daitekeen egoeran”.

Artikulu honengatik, eta laugarren artikuluegatik, Parlamentuko Talde Sozialistak bere onespina ukatu zion Itun horri Parlamentuan berresteko tramitean.

Ordutik hona ezin izan da aurkitu eduki horren aplikazio baketsurik. Eliza katolikoak hausnartu behar-

ko luke egitate garrantzitsu bati buruz, hots, funtsezkoa (ikastetxe guztietan erlijio katolikoa irakastea) ez dela eztabaidatzen, eta bai ordea etengabe luzatzen horren aplikazio-erregimenari buruzko liskarra. Desberdintasuna erabakigarria da: Lehenengoa, Konstituzioak agintzen duena, itun baten emaitza izan zen, PSOEek mende laurden bat geroago ere errespetatzen duena. Bigarrena, ordea, Elizak UCDeko Gobernuarekin egindako ituna baino ez zen izan, Diputatuen Kongresuak berretsi zuen eta behar adinako gehiengoa lortu zuen, baina Parlamentuko Talde Sozialistaren babesik ez zuen izan. Ordudanik, erlijioaren irakaskuntzaren egoera juridikoa eskola publikoan zalantzan egon da. Auziak eta auziak. Eta bitartean, gainbehera.

Horrek guztiak esan nahi du alternantzia politikoko erregimen batean, Elizaren mundu honetako interesak ez daudela behar beste bermaturik eskuinarekin izandako ohiko elkar-ultertzearen bidez; eta horren egonkortasun eta jarraipenerako ezinbestekoa dela nolabaiteko adostasuna (tratua) sektore laikoarekin ere.

“Inkongruente samarra da erlijioaren erabateko borondatezkotasunaren beldur izatea”

Irakaskuntzari eta Kultur Gaiei buruzko Itunaren II. artikulua ia aplikaezina da hitzez hitz hartuta. Oinarrizko beste eskubide batzuekin talka egingo luke. Nola esan daiteke borondatezko ikasgai batek, ikasle guztientzat ere komuna ezin daitekeena izan, oso-osorik parekagarria izan behar duela curriculumaren funtsezko beste ikasgaiekin? Artikulu horrek bere aplikazio praktikoan edo arauzkoan dituen kontraesan eta zailtasunengatik interpretazio adostu eta oso malguak bakarrik libra dezake ezinbestean aldatzeko berrikuspenetik.

Rodríguez Zapaterok esan du bere Gobernuak mantendu egin nahi dituela Itun horiek, nahiz eta bere alderdiaren barrutik, eta gizarte zibiletik presioa gero eta handiagoa izan hori berrikusi beharra dagoela esanez. Erdi-epera, Zapaterok jarrera horri eusteko, zentzuzko adostasun batera iritsi beharko da gaur egun hitzez hitz harturik zaharkituta dauden testu batzuen esanahiaz, horren izpiritua berriro interpretatu beharra dagoelarik orain bizi dugun benetako egoeraren arabera. Bestela, nahitaezkoa izango da Itunaren amaiera iragartzea, sozialistek —berriro diogu— inoiz onartu ez zutena.

Aldi berean, PSOEn egungo Administrazioak, hain garrantzi handia ematen dielarik hiritar izateko hezkuntzari eta erlijioen irakaskuntzari (bere erreforma-proposamenetako bi atal), ulertu behar du balioetan hezteko egiten dituen lege guztiek ez dutela behar besteko egonkortasun eta jarraipenik izango, Elizarekin nolabait elkar ulertzera ez bada iristen, eta hau elkarri amore

emanez bakarrik lortu ahal izango dela.

Jokaleku berria. Iradokizun batzuk

Ministro berriak, San Segundo andreak, legerian egin nahi duen birmoldaketarako ildo nagusiak aurkeztu zituen agiri batean: “Kalitatezko hezkuntza guztion artean eta guztiontzat”, eztabaida publikora jarri zuelarik horren edukia.

Beraz, berriro elkar ulertzen saiatzeko oso noizbehinka agertzen den aukera horietako baten aurrean gaude, eta zaila da, baina ez ezinezkoa. Alferrik galtzen bada, berriro araudien eze-gonkortasunera, gatazketara eta alferrikako liskarretara itzuliko gara hainbat urtetarako. Beraz, merezi du gutxienez iradokizun batzuk aurkezten ahalegintzeak.

Lehenengoa, eta agian garrantzitsuena, 77-78ko “animus negociandi” berreskuratzea da, konstituzio-adostasuna ahalbidetu zuena. Hau da, elkarrekiko amore-emateetan oinarritutako tratu zintzorako jarrera.

Esperientziak erakutsi digu zein diren liskar-puntu nagusiak, batzuen eta besteen jarrerak aurka jartzen dituztenak. Aski da berraztertzea topaketa-gune izan litezkeen erdibideko jarrera batzuk irudikatzeak.

a) Erlijioa eta bere alternatiba posiblea.

Konstituzioaren agindua (27,3) eta Rodríguez Zapaterok garbi esandakoa —hau da, Vati-

“Erljioaren irakaskuntzaz elkarulertzeko orokorrak ez du baztertu behar irakasleen estatusaren arazoa”

kanorekin egindako Itunak mantendu egin behar direla— kontuan izanda erabaki behar da erlijio-eskolen araubidea, eta aldi berean horrelakorik nahi ez duten ikasleena.

Ikasgai alternatiboaren gatazka zaharra, hori bai ala ez, agian honela konpondu ahal izango litzateke: izaera orokorrean ikasgai alternatibo bat ezarriz, baina betiere onartuz banaka horretatik salbuesteko aukera izango dutela berariaz horrela eskatzen dutenen seme-alabek, aurrez eta zehazki dagozkien aukera eta eskubideen berri garbi eman ondoren.

Ikasgai alternatibo honek erlijiozko arte, musika eta literaturari buruzko kultur edukiak izan litzake, edo Erljioen historiari buruzkoak, jakintza hauek curriculumeko beste gai batzuk osatzeko edo/eta sakontzeko direlarik.

Erljio-gertakariari buruzko beste alde batzuk, hala nola kontzientzia-askatasuna, erlijio-askatasuna, tolerantzia edo Estatuaren laikotasuna, ikasle guztiek jakin beharrezkoagoak, “Herritar on izateko hezkuntza” ikasgai komun berrian sartu beharko lirateke.

Salbuesteko aukeraren printzipioak gurasoen aukera askea babestu eta handiagotuko luke, Konstituzioaren 27.3 artikulua eskubide hori ematen baitie, hots, ahalmena ematen die aukeratzeko erlijio konfesionaleko eskolen edo erlijio-kulturari buruzko irakaskuntza alternatiboaren artean, edota biei uko egin ahal izateko, beren seme-alaben erlijio-heziketa soil-soilik beretzat gorde nahi baldin badute. Honela ez zaito inori ezer inposetzen. Hainbat zerbitzuren arteko aukera eskaintzen da. Salbuesitako ikasleak ikastetxean bertan ikasteko guneetan geratuko lirateke.

b) Ebaluazioa:

Ondorio guztietarako balioa eta garrantzia duen ebaluazio akademikoaren eta ez ebaluatzearen artean, badira tarteko aukerak.

Borondatezkoak diren, eta beraz ikasle guztientzat izan ez daitezkeen, ikasgaiei orientaziozko eta informaziozko ebaluazioa dago. Orientaziozkoa ikaslearentzat berarentzat eta irakaslearentzat egindako aurrerapenei buruz. Informaziozkoa gurasoentzat seme-alaben eskola-errendimenduz. Eta hori guztia kalifikazio horiek batezbesteko notan, beketan, edo hautespen-probetan eraginik izan gabe betetzen da.

c) Kokapena:

Erljioaren irakaskuntza konfesionalak gaur egun kuantitatiboki gehiegizko dimentsioa du, baina infrakategorizatua dago eskolarikuspegitik.

Kuantitatiboki neurrigabeko ordukopuruak ditu curriculumaren barruan garrantzi bereko beste

ikasgai askoren aldean. Aitzitik, oso estatus prekariora du, bere eraginkortasuna asko gutxitzen duena, eta aldi berean hirietako Institutu publikoetan ikasle-kopurua gelditu baina etengabe jaisten ari da. Horregatik, zentzuzkoa litzateke pentsatzea ez ote litzatekeen komenigarriagoa izango kopurua jaitea eta kalitatea hobetzea.

Vatikanorekin egindako Itunak ere ez du esaten ezinbestean ikasturte guztietan irakatsi behar denik. II. artikulua irakurtzen badugu berriro, zera aurkituko dugu: eskolaurre, oinarriko hezkuntza, batxilergo eta pareko adinetan lanbide-heziketako graduatan presente egon behar duela. Baina ez du esaten ikasturte guztietan eta ordu-kopuru jakin batekin egon behar duenik.

Horregatik, balioetan heztea berriz aztertu behar bada osoki, eta horretan denok lagundu behar dugu, beharbada zentzuzkoa litzateke erlijio-eskolak eta erlijio-kulturazko eskolak ematea "Herritar on izateko hezkuntza" gai berria ematen ez den ikasturteetan (eta hauek bi dira DBHn eta bat Batxilergoan), irakasgai hau ere funtsean heziketa moralera bideratua baitago, batez ere dimentsio etiko-zibikoan izan arren.

d) Irakasleak:

Erljioaren irakaskuntzaz elkarulertze orokorrak ez du baztertu behar irakasleen estatusaren arazoa. Zailtasuna honetan datza: nola bateragarri egin "missio" edo *venia docendi* delakoa merezitako eta beharrezko enplegu-egonkortasunarekin.

Urteroko izendapenen mekanismoa ez da oso jasangarria. Gutxienez, irakasleen zerrenda iraunkor bat beharko litzateke, gaitasun egiaztatua eta behar besteko titulazioa dutenena, eta hor oinarrituta esleitu lanpostuak publikotasun, meritua eta gaitasun-irizpideak erabiliz, iraupen mugagabeko kontratuetara bideratuz, Langileen Estatutuaren arabera.

Bukatzeke: adostasuna eraikitzea ez da arerioaren aurka berriro borrokatzea bezain distiratsua. Baina bakearen erresuma ez da eraikitzen buruargitasuna adiskidetasunaren zerbitzura erabiliz baizik.

Gómez Llorente, L. (2005). Religión y escuela, hoy. *Crítica*, año LV, nº 921. pp. 44-49.



Giza izaera sa

Teresa Guardans

Centre d'Estudi de les Tradicions Religioses. Bartzelona



Erljioa eskola publikoan... Gure herri eta hirien pluraltasun erlijioso gero eta handiagoaren ekarpenetako bat zera da, are nabarmenago uzten dituela orain arte proposaturiko eredu ofizialen mugak. Eta hori ez da gutxi. Erljio-
eskolako orduan ikasleak beren sinesmenaren (edo beste aukera bat den ez-sinestearen) arabera banatzearen zentzugabekeria ikusarazten digu. Bereizte horrek esan nahi du “bakoitzak berea, eta besteena ere norberaren ikuspegitik bakarrik ikustea”. Ikasgelan edozertaz hitz egin dezakegu, dena eztabaidatzen eta ikasten dugu elkarrekin, baina “erlijioa” iristen denean, orduan ez. Orduan banatu egiten gara, “bakoitzak berea”, zubirik gabe, elkarrizketarik gabe, eztabaidarik gabe, ikerketarik gabe, elkarren onarpenik gabe... Bestearen inolako informaziorik iristen bazait, “neureaz” hitz egiteko gai jotzen den norbaiten iritzi gisa iristen da; katolizismoa irakasteko gaitasun-titulua duenak aurkeztuko die bere ikasleei Erreformaren eta Eliza ebanjelikoen zentzua; islama irakasteko gai denak aurkeztuko du kristautasuna; sinesle edo fededunak azalduko du agnostizismoaren eta ateismoaren balioa, eta alderantziz... Eskolako klastro eta kontseiluak ideologia, helburu, balio, metodologia eta abarren erantzule egiten dira, guztiaren erantzule erlijio-eskolan gertatzen denaz izan ezik. Erljio-pluraltasunak nabarmen uzten du batentzat ere eredu ona ez zena, askorentzat ere txarra dela.



Bankona lantzen

Egin dezagun beste urrats bat. Ba al du zentzurik erlijioaren gertakaria eskola publikoan, laikoan, aurkezteak? Lagungarri izango ote da gelan dauden haur — neska-mutiko— guztien garapen pertsonalerako eta horiek biziki-detzan hezteko? Honi “baietz” erantzuten badiogu, orduan nola galderari erantzun behar diogu.

Laizismoak ez du esan nahi ezereen aurka; definizioz, inolako aurreiritzi eta dogmatismorik gabe aurrera egiteko jarrera esan nahi du; galderak egitera bultzatzen gaitu, ezer ziurtzat ez jotzera, eta horrek ikertzera, hausnarketa edo gogoeta egitera, gauzak balioztatzen, erkatzen, elkarrizketatzen, hautatzen, baztertzen, aukerak egitera, sakontzen... Azken batean, horrela hornitzen gara tresnaz herritar trebatu gisa bizi ahal izateko etengabe aldatzen ari den munduan, non jada ez baitago lekurik ziurtasun absolutu, bakar eta baztertzaileetarako; ikaragarri eta konplexua den munduan, non

pertsona guztien eta bakoitzaren izaera sakona ezinbestekoa gertatzen baita gure jarduna gidatzeko, zentzua duen ingurunea erai-kitzeko. Mundu horretan erlijioaren gertakaria ere errealitate bat da. Guri atsegin izan edo ez.

Anthony de Mello-ren irudi batek hitzak aurreztuko dizkigu. De Mellok esaten digu esploratzaile bat, bidaia luze baten ondoren, beretarren ondora itzuli zela. Urduri zeuden haren zain, Amazonasi buruz dena jakiteko irrikaz. Baina hitzik ez zuenez lore exotikoak ikusi edo gauean oiha-neko hotsak entzutean sentitu zuen zirrara azaltzeko; ez zekienez nola azaldu arrisku-sentipena basapiztien hurbiltasunagatik, ezta ere kanoan arraunean zihola sentituriko sorpresa, esan zien: “zoazte eta aurkitu zeuek”. Orientatzeko, ibaiaren mapa egin zien. Guztien artean mapa hartu eta udaletxean zintzilikatu zuten. Askok kopiak egin zituzten, eta haiak ere eseki egin zituzten. Eta maparen kopia zeukanak ibaiaren ezagutzaile aditutzat jotzen zuen

bere burua¹. Erlijio-mundu bakoitzak bere esploratzaileak dituela esan genezake, bere mapak eta mapa-gurtzaile begirunetsuak. Eta mapa horien zaintzaileak, kopiatzaileak, mapak ematen dien agintaritzarekin hitz egiten dutenak... Mapa horiek funtzio askoren zerbitzura egon dira, batzuk oso onuragarriak denboran zehar, nahiz eta gero erabiltzeari utzi edota beste baliabide batzuek ordezkatu dituzten, egokiagoak, nonbait, gaur egungo munduaren egoerarako. Baditugu, beraz, maparen aurkakoak ere. Denbora luzeegian, dena mapa horretatik espero zutenen eta mapak gurtzeari inolako zentzurik aurkitzen ez diotenen artera mugatu da eztabaida. Azken aldiotako pauso (bakarra) mapa guztiak berdintasunean jartzea izan da, edo gutxienez, bide horretan aurrera egiten ahalegintzea: dibertsitatearen tratamendu orekatua bilatzea eta ez diskriminatzailea. Baina... zeri buruz? Zer da mapa bat? Zer simbolizatzen du? Zeri egiten dio erreferentzia? Zer da esploratzaileak bultzatzen dituen? Zein da

(1) A. de Mello. L cant de l'ocell. Bartzelona, Claret, 1985. 446. or.

horien ahaleginen zentzua? Sinbolo-multzo hori marraztean komunikatu nahi izan zuten esperientziak, zer-nolako errealitatea du?

Ezinbesteko lehen bereizketa: esploratzaileak eta haien bilaketa ez da beraien hitzei buruz eginda-ko erabilera. Ez dira gauza bera, are gehiago, historiak esaten digu oso eremu desberdinetako errealitateak direla. Sarritan, kontrajarririk ere bai. Alde batetik, adieraztezin edo ezin esanezkoaren esperientziak, mugarik gabeko amodio-keinuekin batera, den eta dagoen guztiaren aurrean mirespena eta zirrararen sentitzea... edo jokaera bidegabean salaketa gizarte-erakunde hierarkizatuko sistemen aurrean, arau moral mugiezinen eta abarren aurrean. Bereizketa ez bada garbi egiten, alderdi bat besteak ezkututzen du, menderatu eta monopolizatu egiten du.

Morrontza eta aurreiritzi dogmatikorik gabe, erlijioaren irakaskuntzari buruzko galderak beste galdera garrantzitsu batera garamatza orduan: zer espazio uzten dugu giza izaera sakona lantzeko? Zer espazio doako interesari (aplikazio eta emaitzetatik haratago), arretari, existentziaren balioari atea zabaltzen dien barne "kezka" hori lantzeko? Zer espazio benetako zientziaren, benetako artearen, pentsamendu-sakontasunaren eta —baita ere—, Einstein-en arabera², benetako erlijio-esperientziaren sehaska den ziurtasun sotil horrentzat? Bizitzen ikasteak —idazten du E.

Morinek³— kontzientzia hartzeraren eraman behar gaitu benetako bizitza ez dagoela horrenbeste premia utilitarioetan, inork ezin duelarik horietatik ihes egin, baizik eta norberaren errealizazioan, eta existentziaren izaera poetikoan. Bizitzeak gutariko bakoitzari buruargitasunik handiena eta giza gaitasun guztien mobilizazioa eskatzen dio. Gaitasun guztien mobilizazioa, hezkuntza-arlo guztien eta bakoitzaren helburu dena eta izan beharko lukeena; ala ez? Baina bat etorriko ginatke Raimon Panikkar-ekin, erlijio-dimentsioaren hezkuntzari buruzko jardunaldiak hasterakoan⁴, zera azpimarratzen zuenean: ez dagoela giza dimentsiorik existentziaren misterioarekin "lotzeko" (religare) gai ez denik, eta ikaskuntza espezialitateetan banatu dugunez, dena inpregnatzen duen dimentsio horri espazio espezifikoa ematea onuragarri eta beharrezkoa izan daitekeela; hori da berak esaten ziguna.

Hainbat izango lirateke "espazio espezifikoa" hori egituratzen duten ardatzak, gainerako arloekin elkartzunean, hezkuntzarekin bere osotasunean hartuta. Beti irekita dagoen esplorazio-eremu gisa errealitatearekin harremana bultzatzea, alderdien aberastasuna aurkituz, baita maila sotilak ere, eta hori gure jakintza bakar batek ezin duela agortu erakutsiz. Sekula ez dago dena esanda, beti dago zerbait gehiago, historiako artista guztien ahaleginak edertasuna inoiz agortuko ez lukeen bezalaxe. Dimentsio askotako errealitate batekin harremanetan

sartzea, hori posible egiten duten jarreraren garapena bultzatuz: galderak egitea, norberaren autonomia, arreta-gaitasun iraunkorra, beha egoteko edo isilik eta entzuten egoteko gaitasuna... Hor dagoelako eta ez nik hartzen dudalako bakarrik, den eta dagoenarekiko interes sakonera pixkanaka garamatzen guztia. Paraleloan, "espazio berezi" hau izango da esparru egokia hizkuntzaren erabilera sinboliko eta poetikoa esploratzeko ere, hori baita bitarteko nagusia balioztapen den jakintza bat komunikatu eta lantzeko.

Honela aurkeztuta, baliteke zentzugabekeria ematea, posible den eskola-errealitate orotatik oso urrun dagoela. Ezta utopia bat ere. Baina dirudiena baino sinpleagoa da. Egia esateko, dagoeneko asko —edo dezente— dira bide horretan lanean ari direnak. Eguzkia ari gara aztertzen? Itsasoari, urte-sasoiei, gizakiei... buruz ari gara lanean? Gai guztiak landu litezke lehenik galderatik abiatuz. Baina hori bai, behar den denbora guztia hartu behar da galderaren batek motibatuta arte. Gero arrastoak bila daitezke natur eta gizarte-zientzietan, olerkari eta margolarien ekarpenak balioetsi, mitoek agerian jartzen dituzten alderdi ezkutatuak ahogozatu, jakintsuen parabolak eta esanak ikertu... Ez dago lehen eta bigarren mailako diskurtsorik. Edozein gai azter daiteke den bezala, aurpegi askoko diamante edo harribitxi bezala, gure begien eta sentimenaren aurrean hazten dena, gure eskura dauden gaita-

(2) Albert Einstein. Mis ideas y opiniones. Bartzelona, Bon Ton, 2000, 9. or.

(3) Edgar Morin. La mente bien ordenada. Bartzelona, Seix Barral, 2000, 59. or.

(4) Educar la dimensió religiosa humana. Congrés de la Societat Catalana de Pedagogia. Bartzelona, azaroaren 27 eta 28a, 2003.

sunen eta hizkuntzen aniztasunetik lantzen dugun neurrian. Eta hori guztia galdera berrietara irerkitzeko, mundua —gu geu garena— esploratzeko abenturan partaide garelako jakinez. Jakinduriarako ondare zabal eta ugaria dugu (hasi ipuinetatik eta...), eta beti aurkituko dugu material egokia adin, gai edo eskola-ingurune bakoitzerako.

“Benetako bizitzan” ibiltzen hasteko ikuspegi horretatik, esploratzaileen komunikazio-ahaleginak zentzua hartzen dute. Horien ibilerak arrastoak uzten ditu, arrasto hauek ez diote ibiltariari batere pausorik aurrezten, baina bai erakartzen, laguntzen, gidatzen...

Orain arte esandakoa bilduz: ikastetxe publikoetan erlijioaren irakaskuntzaren “arazoak” ez liguke ahaztarazi —edo oztopatu— behar pertsonen “izaera sakonaren”⁵ garapeneren arazoa, betiere curriculum osoaren koherentziatik. Ikastalde osoak partekaturiko curriculumak. Lehen irakaskuntzako zikloetan, garapen hori posible egiten duten jarrerak landuko ditugu. Agian orduan ohartuko gara erlijio-tradizioen jakinduriarako ondarean ere aurki genitzakeela lana bultzatzeko oso elementu baliotsuak. Jakinduria-maisuen hitzekin harremanetan sartuko ginatke, gai batean edo bestean egindako ekarpenagatik; ez egia ukiezin gisa hartuta, baizik eta aztertu, eztabaidatu eta alderatzeko duin diren iradokizun edo enigma gisa hartuta; gizadiaren ondarearen osagai gisa hartuta, jada horren isla bat delarik ikasgelako errealitate askotarikoa.

Erljioak? Bai, noski, dagokien mementoan; eta memento hori (zein mailatan, zein ordutegirekin...) irizpide pedagogikoz finkatu behar da, ez irizpide politikoz, ezta diplomatikoz ere. Ez dugu ikasgeletatik kanpo utzi behar ingurunearen parte edo osagai den ezer, ingurune horretan egiten dugularik geure bizitza haur eta nagusiok. Eta are gutxiago zoriaren esku uztea merezi ez duten alderdi sentikor batzuk. Erljio-kultura eman behar duten irakasleek gai izan behar dute “erlijio” deitzen dugun hori osatzen duten alderdien aniztasun handiaz jabetzeko. Eta beren bilaketa eta hazkunde-ibilbide propioaren parte gisa, esplora-tzaileekin eta hauen mapekin harremanetan dauden ikasleei irakatsi behar diete. Eta irakaskuntza honi esker, ikasleek irizpideak eta elementuak izango dituzte, bereizi ahal izateko erabilerak, gehiegikeriak, zehaztapen historikoak, interpretazioak, distortsioak, desbiderapenak, ideia onak eta okerrak... esploratzaileen eta beraien mapen izenean eginak. Ikaskuntza aberasgarria, gure sormen guztia eskatzen duten ingurune gero eta pluralagoetan bizi ahal izateko.

Eta erlijio partikularren irakaskuntza ikasle-talde espezifiko bakoitzarentzat? Noski, erlijio-konfesioek izan dezakete diru publikoaren laguntza, herritar askoren interes oso bidezkoa baita (gainera, itun edo hitzarmen batzuk daude horretaz). Are gehiago, konfesio batzuek espazio egokirik ez baldin badute gune (auzo, herri...)

“Irakasleek gai izan behar dute erlijio deitzen dugun hori osatzen duten alderdien aniztasun handiaz jabetzeko”

jakin batzuetan eskaerari erantzuteko, ikastetxe batzuekin —edo askorekin— hitzarmenak ere egin litezke ikasgelak lagatzeko, betiere nork bere uste eta sineskizunen arabera hezi eta prestatzeko duen konstituzio-eskubidea bermatzeko helburuarekin. Hain zuzen ere, eskubide hau Konstituzioan dagoelako, herritar guztiena da, eta ez bakarrik “nabarmen sustraituriko konfesioen” multzo aukeratuan sartzen direnena bakarrik. Beraz, herritar guztiengana irits daitezkeen formulak bilatu behar dira, eta konstituzio-esparru komuna bere egiten ez duelako bere burua kanpo uzten duen konfesio, mugimendu edo sinesmena bakarrik geratuko da kanpoan.

“Gelak” utziko litzaizkieke, ez eskola-orduetako batzuk, hauek gelako ikasle guzti-guztientzat baitira, eta merezi dute ordu horiek guztiak eta bakoitza ikastetxeak lortu nahi duen proiektu komunaren zerbitzura egotea: norberaren heldutasuna, lankidetzeta eta elkar ezagutzea helburu dituen proiektuaren zerbitzura.

(5) “Espiritualtasuna” dei geniezaiok, hitz honen erabilerak ez balu iradokiko gorputz/espirtu dualtasuna, edo izate espirtual batzuen existentzia, etab.

Kanadak, adibidez, bigarren irakaskuntzako zentroetan, konfesionala ez den “Animazio espirtual eta gizarte-konpromisoko Zerbitzua” sartu du, ikasle guztiarentzat eta ikastetxetako irakasleek kudeatua, proposamen-aukera zabalarekin.

Erlijioaren alde

Elena Martín

“Santo Tomas de Aquino” Oinarrizko Kristau Elkarteko kide eta Hezkuntza Psikologiako irakasle Madrileko Unibertsitate Autonomoan



Gaizki hasia gaizki bukatzen da, dio herri-jakinduriak. Ikastetxeetan erlijioaren irakaskuntzaz Gobernuek bata bestearen ondoren hartutako erabakiek zentzugabekerien historia osatzen dute, eta maxima hori nola betetzen den erakusten duen adibide paradigmaticoa dira. Leun esateko, Konstituzioan ezarritako akonfesionaltasunarekiko inkoherentzia hutsa da Eliza Katolikoaren eta Espainiako Estatuaren arteko itun edo hitzarmenak egotea, eta horixe da gure ustez bi aginteen artean sortuz joan diren gainerako arazoen — eta zehatzago esanda, ikastetxeetan erlijioari dagokion zereginaren arazoaren— muina.

Oinarrizko galdera hau da: irakatsi behar al da erlijioa ikasle guztien curriculumaren osagai bezala? Nire iritziz, ez. Erljioaren gertakaria gizartetalde baten oinarrizko kultur elementu gisa ezagutu behar dute ikasleek, eta eduki hauek jada ezarrita daude gizarte-zientziatako irakasgaietan. Baina erlijio-sineskizunak, aukera hori egiten dutenez, eskola-esparrutik kanpo eman eta hartu behar dira.

Niretzat, sinesle naizenez, fedezkuntza da garapenaren ardatz

nagusia, baina bere muinagatik norberaren aukera-eremuan sartzen da hori. Ez du, beraz, herritar orok eskolan ikasi beharrekoaren parte izan behar. Eskola laikoa da guztion topagunea, guztiok —gizartearen eta geure ongizatearen subjektu erantzule garen aldetik— elkarrekin bizi ahal izateko komun eta ukaezina dugun eremua. Horrek balio-heziketa sendoa eskatzen du, eskolako denbora eta espazio oro barne hartuko duena, baina ez du esan nahi inongo erlijiorik irakatsi behar denik. Are gehiago: estatu laiko bateko herritarren eskubideak urratzea da hori.

Eliz hierarkiak —erlijio-gaia ikastetxe guztietan irakatsi beharra ezarri nahi duenean eta, horrekin konforme ez eta, “beharrezko garrantzia” eman nahi diolako gainerako gaiak bezalaxe ikaslearen espedientearen horren kalifikazioak pisa dezala eskatzen duenean, eta erlijio-eskoletara joan nahi ez duten ikasleek ikasi beharreko alternatibaren ere eragiteko esku-bidea aldarrikatzen duenean—, nire ustez, zera erakusten du: ez duela uste on edo konfiantzarik Jainkoaren herrian, eta horrek ni neu behintzat eskandalizatu eta lotsarazi egiten nau.

Uste ote dute eliz arduradun horiek kristauok ez daukagula behar adina fede gure seme-alaben prestakuntza bermatzeko? Horregatik erabili behar ote dituzte “amuak”, nota on bat lortzeko erraztasuna, adibidez? Ez ote dute konfiantzarik Komunitatearen mezu ebanjelikoan, fedean hazteko eremu gisa?

Eta gizarte zibilaren ikuspegitik, zein printzipiotan oinarritzen dira ustezko zenbait eskubide: irakasgai hori nork emango duen erabakitzea, kontratua noiz egingo zaion erabakitzea edo noiz eten —kasu askotan berez ere eskandalagarri diren arrazoiengatik—, gai horren curriculumaren edukia ezartzea eta, gainera, langile horiei Estatuak ordain diezaiela eskatzea? Hezkuntza-administrazioek nola lagako dituzte ikastetxe publikoetan lan egiten duten langileetako betebeharrak? Zein enpresatan gertatzen da langileei ordaintzen dienak ez aukeratzea langile horiek eta ez erabakitzea horien egitekoak?

Zenbaitetan, elizaren nahiz politikariaren sektorerik kontserbadoreenetatik, erlijioaren alternatibatzat beste irakasgai bat sortzearen alde egin izan da —“gizalegezko edo demokraziaren balioen” irakasgaia— eta hori zentzugabeberia onartezina iruditzen zait, duela urte batzuk idatzi genuen artikulu baten izenburuak ongi laburbiltzen duena: zintzoa edo katolikoa izan, zuk aukeratu. Esan den bezala, eskolaren zeregin nagusietako bat ikasleen artean balio moralak garatzea da, balio horiek gizadiak —eta bere eboluzioaren ezaugarri baliotsuenetako bat da— bere gain hartu baititu eta



herritar ororen heziketarako ezinbestekoak baitira. Honek dualismo kaltegarri bat gainditzea eskatzen du: erlijio-esperientziaren eta heziketa moral eta etikoaeren artekoa, fede-sineskizun bidezko eta baliotsuaren eta giza portaeraren ipar izatea nahi dugun kode axiologikoaren artekoa. Gizartearen lorpena iruditzen zaigu ikasle guzti-guztiek, zeinahi dela ere beren erlijio-sineskizuna edota horrelakorik gabeak izanda ere, beren judizio moralak garatzeko heziketa hartzea ikastetxeetan, baita zenbait balioren arabera une bakoitzean egokiena bereizteko gaitasuna lortzea ere, gero horiekin kontsekuente izanez jokatu ahal izateko. Balioetan hezteak, beraz, ezin daiteke izan beste ezeren alternatiba, funtsezkoa baita ikasleen heziketan.

Oraindik irekita dagoen polemikaren funtsezko gaiak dira hauek; bitartean Gobernuak

agindutako Hezkuntza Lege berriak har ditzakeen erabakien zain jarraitzen dugu. Hala ere, ez genuke hausnarketa txiki hau bukatu nahi beste bidegabekeria bat aipatu gabe: Eliza Katolikoak hezkuntza-agintariengandik hartu izan duen pribilegiozko tratua beste erlijio batzuen aldean. Erabaki hauek benetako zentzugabeberiaz josten ados baldin bagaude, ulergarria gertatuko da sinesle askok uste izatea gure izena ez zikintzeko era bakarra eliza-hierarkiari zera eskatzea dela: bazter dezala esku sartzeko jarrera hau eta errespetatu dezala eskolaren laikotasuna; eta herri-agintariei, berma dezatela gizarte-bizikidetzarako funtsezkoa den balio hau.

Martin, E. (2004). En defensa de la religión. *Alandar*, 211

Erlijio-transmisioa

gurasoengandik s

Jesús María Mata

Guraso eta Antzuolako katekista

Bi semeren aita naiz, 15 urte daramatzat Amaiarekin bizitzen, lanbideari dagokionez informatikaria naiz, eta artikulu honen gairako jakingarri den datu gisa, azken lau urteotan katekista izan naiz bizi naizen herriko parrokian, hau da, Antzuolako Gure Errukizko Amaren Parrokian.

Eztabaida-gai honi buruz, beste guraso askok bezalaxe, ez daukat argi nola irakatsi behar den “erlijioaren gertakaria” eskolan. Baina gai honetaz neure iritzia emateko konpromisoa hartu nuenez, ez dut beste erremediorik izan: gogoeta egin eta ausartu egin behar neure iritzia zuei azaltzera.

Inork ez du dudan jartzen gure seme-alabek beren herriko historia eta kultura jakin behar dituztela; era berean uste dut ez dagoela dudan jartzerik herriko erlijioa ere ezagutu behar dutela. Ez zait buruan

sartzen nola irakats daiteken historia, historia sakratuaren zati bat jakin gabe adibidez, edota kristautasunaren eta islamaren ideario edo gogoinarriak zein diren jakin gabe.

Historiaz, arteaz, musikaz edo kulturaz dakidan apurratik, badakit ez dagoela arlo horiek ulertzerik beroriek motibatzen zituen gertakaria ezagutu gabe, kasu asko-askotan erlijio-gertakaria, alegia. Erljioa zerbait oinarritzkoa, berezkoa eta gertakari ugariaren jatorria da, gertakari horiek gaur egun gure historia, artea, musika eta kultura osatzen dutelarik. Beharrezkoa da, beraz, gure

seme-alabek “erlijioaren gertakari” horiek ezagutzea.

Baina behar al da erlijio-irakasgaia eskolan? Ba, ezetz uste dut, pentsatzen dut aipaturiko gertakari horrek bakarrik ez duela justifikatzen. Hau da, kulturalki eta historikoki arkitekтура ere gure kulturaren eta gure historiaren parte izan da, baina horrek ez du justifikatzen arkitekturako irakasgai berezi bat ematea eskolan.

Ez dakit asko pedagogiaz, baina iruditzen zait ez dela hain zaila ltun Berriko pasarte bat edo erlijio baten sineskizun bat azaltzea, hori historiako

a


seme-alabengana



edo musikako edo arteko eskolaren barruan agertzen denean.

Pentsatzen dut espirituaren heziketa dela behar den irakasgaia. Nire ustez, eskolan onartu beharra dago espirituaren heziketa behar dutela gure seme-alabek.

Esaten dugunean eskolak beren osotasunean hezi behar dituela gure haurrak, onartzen dugu haurren bizitzako hainbat alderdi kudeatu behar dituela, hau da, adimena, sentiberatasuna, gorpuztea, besteekiko harremanak eta beren barne-ezagutza.



Oihana eta Xabier Arregi.

Adimena, berau garatzen ikasteko: ezagutza edo jakintza lortzea, borondatea eratzea, askatasuna erabiltzen ikastea, erabakitzen ikastea eta erabaki

dutena lortzen ikastea beren borondatean oinarrituta.

Sentiberatasuna, beren sentimenduak "kudeatzen" ikasteko,

nola funtzionatzen duten, eza-
gutzen, interpretatzen... ikaste-
ko.

Besteei dagokienez, erlazio-
natzen ikastea: harremanetara-
ko, besteak ulertzeko, bestee-
kin enpatizatzeke, maitatu eta
maitatua izateko gaitasuna
garatuz.

Norberaren gorputza zaintzen
ikastea, ariketa eginez, egoki
elikatuz, zainduz, etab.

Barne-ezagutza, haur bakoitzak
berak dituen gaitasun bereziak
eta desberdinak aurkitu eta
garatu ahal izan ditzan.

Iruditzen zait arlo horiek guz-
tiak kontuan izanda eta era
egokian landuta ia irits daiteke-
ela norberaren garapen oso eta
betera.

Hala ere, beste osagai bat falta
da, eta hori gizaki orok duen
alde espirituala da. Alderdi
honen garapen osoa lortzea
falta da.

Eta ziur asko galdetuko duzue
zer ulertzen ote dudan nik “alde
espirituala” esatean.

Uste dut gizaki orok, gizaki
denez, barne-indar bat duela,
bizitzan egiten dituen gauza
guztietan bere barruko onena
ematera bultzatzen duena,
hobea izatera, bestea maitatze-
ra, etab. Indar hori gutxi gorabe-
hera denok sentitu dugu, ez
agian beti eta etengabe, baizik
eta bizitzako une jakin batzuetan
agian, baina, esan bezala, giza-
kiak berezkoa duen zerbait da.

Indar hori beren barruan aurki-
tzen irakasten badiegu seme-

alabei, horretan sakontzen,
hori ezagutzen eta erabiltzen
irakasten badiegu, bete-betean
biziko diren gizaki bihurtuko
ditugu. Gainera, euren den
zerbait dela ikasiko dute eta
beren baitan aurkitzen duten
hori inguruko “guztitan” dagoela
ere ohartuko dira.

Indar horri batzuek Jainkoa edo
Jahve deituko diote, beste bat-
zuek energia unibertsala, beste
batzuek “goranzko joera”, etab.
Nire ustez, hori pertsona oro-
ren barruan dago eta ingurat-
zen gaituen GUZTIAREN
barruan. Bete-betean bizitzera
eta zoriontsu izatera iristeko
modua dela uste dut.

Eta nork irakatsiko die hau?
Horretara erabat emana dago-
en jendeak egin behar duela
uste dut, zeren eta guk, kate-



**HINDUISMOA****ISLAMA****TAOISMOA****JUDAISMOA****KRISTIANISMOA****BUDISMOA**

kistok, ongi egiten saiatu arren, ez baitugu baliabide pedagogikorik, materialik, behar beste denborarik... eskolarekin alde-rutata, behintzat.

Nik, gainera, hori ere eskolan irakats diezaieten nahi nuke.

Pentsatzen dut "erlijioaren gertakariak" irakastea ez dela erlijioaren zera funtsezkoena, baizik eta garrantzitsuena bakoitzaren espiritualtasuna lantzea dela.

Apal-apal esanda, uste dut, erlijio-irakasgaiaz ari garenean, zera pentsatzen dugula: Hori Historia Sakratua irakastea dela, edo mirari bat edo bestea kontatzea, edo doktrina ikastea, edo gure santuak nola bizi ziren ikusteak, etab. Ikuspegi honekin, eta nire ustez akats honetan erori da eliza katolikoa, "anekdotikoa", errituak, betebeharrak, "esaldi biribilak"... erlijioaren muin bihurtzen ditugu.

Baina erlijioaren funtsa zera da, hobe izaten laguntzen didala, barrutik hobeto bizitzen, gizaki bezala dudun gaitasun eta ahalmen guztia ikusten, bete-betean bizitzen eta zorionsu izaten.

Ondorio gisa, eta laburtze aldera, ukazina iruditzen zait "erlijioaren gertakariaren" presentzia ugaria dela gure herriaren kulturaren eta historian. Beraz, "erlijioaren gertakari" horiek transmititu eta irakatsi egin behar dira gure herriko historia-aren, artearen, musikaren, kulturaren... osagai bezala.

Baina erlijioaren funtsa ez dago "erlijioaren gertakari" horietan. Garrantzitsuena gure bizitzak erabateko garapena izatea da, eta horretarako ezinbestekoa da gizabanako bakoitzaren espiritualtasuna lantzea.

Uste dut eskola dela hori egiteko lekurik onena, prestakuntza

hori transmititzeko baliabiderik onenak dituelako. Gainera, uste dut alderdi hori lantzea behar bezain garrantzitsuena dela gure ikasketa-planean irakaskagai espezifiko bat izan dadin.

"Erlijioaren gertakariak irakastea ez da erlijioaren zera funtsezkoena, baizik eta garrantzitsuena bakoitzaren espiritualtasuna lantzea da"

Erlijioa eskolan

Protestante ba

Iñaki Mendiguren

Itzultzailea

Saiatuko naiz protestante edo ebanjelikoen egoera azaltzen gai honetan, baina garbi utzita, azken batean, ez naizela inoren ordezkari, eta neure iritziak direla soilik. Kristau-erlijioko adar edo deitura orokor honen barruan, askotariko eliz talde eta tradizioak daude, ikuspegi eta sentiera desberdinekoak, eta nekez eman daiteke iritzi orokor edo ofizialik guztien izenean.



Iberiar penintsulako historian, mende luzetan, katolizismoa —Erromako eliza katolikoa— izan da nagusi gizartean, sarritan Estatuarekin bat eginda; hala ere, ez da erlijio bakarra izan, juduak, musulmanak, protestanteak eta abar ere ondoan izan baititu, gutxiengoan aukerak izan arren. Haren eta hauen arteko harremanak, berriz, salbuespenak salbuespen, mendetasunezkoak izan dira gehienetan: pribilegioak erlijio nagusiarentzat, eta intolerantzia eta jazarpena —suntsitze fisikoa

barne— gutxiengo erlijiosoentzat. Oro har, eta jeneralizazioek beti dituzten arriskuekin, esan daiteke monarkiak eta eskuin aldeko erregimen politikoek areagotu eta okertu egin izan dutela egoera hori; errepublikak eta ezker aldekoak, berriz, erlijio- eta kontzientzia-askatasunaren aldekoago izan dira. Ondorioz, XX. mendeko protestanteen ezaugarri orokor samarra ezkertiar eta errepublikar izatea zen, oraintsu arte bederen (azkenaldi honetan bai baitaude hori aldatzen ari deneko zantzuak).

Frankismoaren garaiko nazional-katolizismoaren eta erlijio-diskriminazioaren aurrean 1956an Comisión de Defensa Evangélica sortu zen talde ebanjelikoen defentsarako. Franco hil ondoren 1978ko Konstituzioarekin Espainia estatu akonfesional (art. 16.3) bihurtu zen, teoriarik behintzat.

Eta “teorian” diot, zeren eta 1979an Vatikanok, bere indar eta presio-gaitasun handiaz baliatuz, Suarezen gobernuarekin halako hitzarmen batzuk lortu zituela, oso mesedegarriak bere-

n?

nten ikuspegia



tzat; arlo asko ukitzen zituzten itun horiek, besteak beste, irakaskuntza eta kultur gaiak, eta hortik datoz gaur egun erlijioa eskolan eman beharrak sortzen dituen arazoetako asko.

Hori horrela, protestanteen artean bi jarrera izan dira, nik dakidanez, behintzat: lehenengoa, goazen eliza katolikoak beretzat lortu dituen onura eta pribilegioak guretzat ere eskatzera, Estatuaren aurrean denok berdinak izan behar baitugu; eta bigarrena, ez gaitzezen joko horretan eror, ez dezagun eliza katolikoaren joka-

bideen segidismorik egin; zenbait gai arautu eta hitzartzea beharrezkoa da, bai, baina, batez ere, izan gaitzezen burujabe, pentsaera independente eta kritikoa-rekin.

Kontua da 1982an elkarrizketak hasi zirela gutxiengo erlijiosoen eta Estatuaren artean nolabaiteko lankidetzat-hitzarmenak bilatzeko. Prozesu horretan Administrazioak tresna juridiko bateratu bat sortzea eskatu zien protestanteei, hitzarmenaren negoziazio, izenpetze eta ondorengo jarraipenean solaskide bakar bat izateko.

Horrela sortu zen FEREDE Federación de Entidades Religiosas Evangélicas de España (www.ferede.org). Hemen daude Espainiako eta EH-ko eliza protestante nagusiak eta tradizio errotuenekoak. 10 urteko prozesu luzearen ondoren, 24/1992 Legearen bidez onartu zen protestanteekiko hitzarmena, eta erlijio ebanjelikoaren irakaskuntza ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan hartzeko eskubidea aitortzen da 10. artikuluan.

Labur esanda, beste erlijioek mimetismoz jokatu dute. Alde

batetik ulergarria da, bestetik tamalgarria, niretzat, behintzat. Esan gabe doa, gaur egungo egoera frankismo garaikoa baino askoz gogobetegarriagoa dela erlijio-gutxiengoentzat. Gaur egun, 2005eko hasierako datuak dira, protestanteek 111 irakasle ditugu 5.198 ikasle erregistraturik erlijio-eskolak emateko (Estatu osoko %50 Andaluzian; Euskal Autonomia Erkidegoan ez da honelako eskolarik ematen. Izan ere, araudiaren arabera, gutxienez 10 ikaslek eskatu behar dituzte ikastetxean erlijio-eskola hauek). Islamiarrek, berriz, 20 irakasle dituzte Ceutan eta Melillan eskolak ematen. Juduek ere legez badute eskubidea beren erlijio-eskolak eskatzeko, baina oraingoz ez dute ez irakaslerik ez ikaslerik. Katolikoek, berriz, 17.000 irakasle baino gehiago omen dituzte 5 milioi ikasle baino gehiagori erlijio-eskolak emateko lehen irakaskuntzan eta DBHn.

Hona hemen nire gogoetak gai honetan guztian:

1. Lehenengo aldarrikatu beharreko printzipio nagusia Estatuaren akonfesionaltasuna da, erabatekoa eta koherentea. Konstituzioan jarri bai, baina gero hori nola hala betetzen dela iruditzen zait. Askoz zorrotzagoak izan beharko genuke laizitatearen defentsan. Beste erlijioak ez diskriminatzea da helburu bat, baina inolako erlijiorik ez dutenak —gero eta gehiago gure gizarteotan— errespetatzea ere oso konfiantzagarria hartu behar da.

Euskal Herrian bertan, oraindik ere erlijioak —batez ere, katolikoak— bizitza publikoan duen pre-

sentzia lekuz kanpoko delatza da: edozein jai edo ospakizunetan, kirol-ekintza askotan, instalazioen inaugurazioetan... hor agertzen da erlijioa; EAEko hiritar guztion lehendakaria (edo herri mailan, alkatea), ez hiritar fededun gisa —horretarako eskubide osoa baitu—, baizik eta bere kargu ofizialean, urtero eta sistematikoki, salbe, meza, arrosario, ospakizun, prozesio-desfile eta abarretara doa denon izenean. Erlijio-askatasuna oinarritzeko eskubidea iruditzen zait, baina baita inolako erlijiorik ez izatea ere.

2. Kultura, historia, soziologia, antropologia eta abarren aldetik erlijioaren fenomenoak garrantzirik handienekoa da, eta, beraz, eskolan sakon landu beharreko gaia. Izan ere, gure gizartean (komunikabideetan, etab.) gaur egun oso kaltegarriak diren ezjakintasuna eta axolagabekeria sumatzen ditut erlijio-gaietan. Gauza bat da norberak ezer ez jakin nahi izatea erlijioaz bere bizi-zentzuari dagokionez (oso ulergarria eta errespetagarria den aukera), eta beste bat, oso bestelakoa, ez ohartzea “erlijio-gertakaria” hor dagoen fenomenoak dela, gure kulturaren, onerako eta txarrerako, eragin handia izan duena eta oraindik duena; Mendebaldeko gizarteetan gero eta gutxiago bada ere, munduan zehar oraindik oso elementu indartsua da, gertaera asko ulertzeko ezinbesteko zerbait.

Geure gizartean bertan, lehen katolizismo erromatarra ia erlijio bakarra baldin bazen, gaur egun beste batzuen (islamaren, protestantismoaren, budismoaren eta abarren) presentzia gero eta nabariagoa da, etorkinei esker

neurri handi batean, eta hauekiko harremanetarako ere garrantzitsua da beraien erlijioez dakigun baino gehiago jakitea. Alegia, neure aukera gorabehera, besteek zer edo zertan sinesten duten jakitea ere komeni zaidala. Nik uste arrazoi praktikoa eta teorikoa asko daudela erlijioaren eta erlijioen gaia eskolan ikuspegi neutro eta zientifikotik lantzeko. Kontua da edukietan eta tratamenduan asmatzea, orekaz jokatzeko, eta ez pasatzea, ez gehiegiz eta ez gutxiagiz. Izan ere, nik ulertzen dut azken urteotan guri egokitu zaigun antikerikalismoa, beste gehiegikeria baten aurkako erreakzio gisa, baina ur zikinarekin ez dezagun haurra ere botatu, eta izan dezagun buru-argitasuna bereizteko zer den guretzat kaltegarria eta zer ona edo gutxienez errespetagarria.

3. Gaur gaurkoz, niretzat planteamendurik garbiena erlijioen transmisio edo irakaskuntza, konfesio gisa, eskolatik erabat eta guztiz ateratzea izango litzateke. Eskola ez da esparru egokia fedearen transmisiorako. Eta honetan ez dator bat ez eliza katolikoaren eskabideekin, ezta honen pribilegio-maila berbera eskatzen duten ebanjelikoekin ere. Uste dut haur eta gaztetxoek fede bat transmititzea edo “doktrina” irakastea lehenik familiaren eta gero norberaren eliz elkartearen eginkizun eta erantzukizuna dela. Baina, ai amigo, hemen hasten dira arazoak. Fede epela edo erlijio-bizipen urria duten guraso askok, inertziak eta badaezpada ere, beren seme-alabei erlijioa emateko eskatzen diote elizari. Eliza katolikoak ere arriskuan ikusten du bere estrategia proselitistaren ohiko osagaietako

bat; beste era batera esanda, igandean elizan harrapatzea nekezagoa gertatuko zaidanez, harrapa ditzadan eskola-orduetan ikastetxean dauden bitartean; gainera, nire erlijioa nahi ez dutenak ez daitezela denbora berean jolasean edo beste zerbait erakargarriagoa egiten ari; eta erraz “piper” egin ez dezaten, irakasgai hori ebaluatzeko eta kalifikatzeko ahalmena ere izan dezadala; eta hor zer irakatsiko zaien eta nork irakatsiko dien, nik erabakiko dut... baina ordaintzea zure esku. Amen eta bakea. Apur bat karikatuzatu egin dut egoera, baina errealitateak hortik ere asko duela uste dut.

Nago trantsizio-garaian beste gai batzuekin (adibidez, estatuko nazio eta nazionalitateen gaiarekin) gertatuaren antzeko zerbait gertatu zela erlijioaren gai honekin ere. Aurreko erregimeneko indar faktiko batek (kasu honetan, eliza katolikoak) bere gizarte-indarra eta eragina galdu nahi ez eta bere presio-gaitasunaz baliatuz, bere irizpideak ezarri zituela, ezinbestean amore eman ez puntu batzuetan, baina betiere pribilegio batzuk ziurtatuz. Nor da eliza bat bere doktrina eta fedea bere jarraitzaileei eskola publikoetan, berak ezarritako edukiekin

eta berak aukeraturiko irakaslee-kin, baina diru publikoz ordainduta, irakats dadila eskatzeko? Eta bere erlijio-eskola curriculum orokorrean ebaluagarri izan dadila eskatzeko? Eta erlijio hori ikasi nahi ez duten beste guztiei eskola-ordu horietan ordezkoko ikasgai bat ezartzeko?

Eliza katolikoaren —eta ondoren beste erlijioen— jarrerak niretzat gauza triste bat adierazten du: mesfidantza sakon-sakona bere jarraitzaileen leialtasunaz. Erlijioen irakaskuntza —ez kultur fenomeno gisa, baizik eta fede edo sinesmen bezala— erlijio, eliza edo erakunde bakoitzak bere gain hartu beharko lukeen zerbait da, familiak edo/eta fedelkarte horrek berorrek eskola-orduetatik kanpo beretarrak hezi eta presta ditzan. Zeregin horixe izan dute azken bi mendeotan protestanteen artean “igandetako eskolek”, adinaren arabera, elizan bertan haur eta gaztetxoentzat antolatutako “eskolek”. Baina nik uste eliza katolikoak badakie-la sistema hau onartuko balu, aipaturiko 5 milioi ikasle horietatik asko samar galduko litzukeela azkar.

Badakit egon badaudela beste planteamendu batzuk. Adibidez, “gizabideari eta bizi-zentzuari buruzko” irakasgai bakar bat ezartzea: zati komun bat izango omen luke guztientzat, eta gero zati profesionalak bakoitzaren erlijioaren arabera; asmo onekoa denik ezin uka, ikasleen artean elkarriketa bultzatu eta bereizketak saihestea izango bailuke ondorio, baina... Beste proposamen batzuen arabera, gizakiaren espiritualtasuna eta gizakiak barruan daraman onena landu eta kanporatzea litzateke “erlijio

irakasgaiaren” zeregina; baina... Eta “baina” horiekin esan nahi dut, ikuspegi interesgarri eta erakargarriak izan arren, ez zaidala iruditzen giroa helduta dagoenik horretarako. Gaur egun, jarrera antiklerikal batzuetan eta erlijioetan nagusi diren joerak ikusita, iruditzen zait nekez lortuko genukeela adostasunik curriculum edo eduki zehatzak finkatzeko orduan.

4. Hala ere, bukatzeko, zilegi izan bekit itxaropen bat adieraztea. Zorioneko “globalizazioaren” aro honetan, lurak eta bertan gizakiok bizirik irauteko, ia ezinbestekoa dirudi mundu-mailako etika bat. Alegia, gutxieneko batzuetan denok ados jartzea elkar jan ez dezagun eta denon arden planeta hau jan ez dezagun. Gai honetaz, sakon eta argi idatzi izan du, adibidez, Hans Küng teologoak: “Ezinezkoa da gizakion bizikidetzaz nazioen artean planeta-mailako etikarik gabe; ezinezkoa nazioen artean bakea, erlijioen arteko bakerik gabe; ezinezkoa erlijioen artean bakea, erlijioen arteko elkarriketarik gabe” [Proyecto de una ética mundial, Madril, 2003 (3. arg.), 167. or.].

Nik, soil-soilik, bigarren puntuan esango nuke ezinezkoa dela bakea erlijioen eta erlijio gabe, laiko, sekularren arteko elkarriketarik gabe. Eta itxaropena dut egunen batean, alde askotariko elkarriketa honen emaitza gisa, sortuko dela etika unibertsal baten inguruko adostasuna, eta hori arazo handirik gabe irakatsi ahal izango dela ikastetxeetan, konfesio guztietako kideek nahiz inolako erlijiorik gabeek gogo onez onartuta. Hala izango da egunen batean... bitartean horretarako lan egiten badugu!

“Zorioneko globalizazioaren aro honetan, lurak eta bertan gizakiok bizirik irauteko, ia ezinbestekoa dirudi mundu-mailako etika bat”

Erlijioa he

Juana López de Munain

Arabako ikuskaritzako lurralde burua



Gaia dagokion lekuan kokatzeko, erlijioaren gertakari edo fenomenoaren eta erlijiozkotasunaren bizipenaren artean bereiztea komeni da.

Erljioaren gertakariaren kasuan, ez dago bazterterik horrek gizateriaren bilakae-
ran izan duen garrantzia. Erljioaren eragina nabaria da giza adierazpen guztietan: artean, musikan, literaturan, bizikidetzan... Baina paradokikoki gerrak eta jazarpenak ere eragin izan ditu. Beraz, giza gertakari amaigabe hauen guztien berri jakiteko eskola-curriculumean sartu behar dira, zenbait arlotan banatuta edukien arabera, edota berriazko arlo batean, "Erljioaren gertakaria" deitu litekeena. Curriculumearen beste arlo bat denez, ebaluatu egingo litzateke eta lortutako nota kontuan izango litzateke espediente akademikoaren batez besteko nota kalkulatzekoan.

Erljiozkotasunaren eta erlijio-sineskizunaren bizipena eskolaz kanpoko beste eremu batean

landu beharko litzateke: bakoitzari dagokion erlijio-elkartean, alegia. Gaur egun eskolak, gizartearen ispilu zuzena izanik, askotariko ikasleak hartzen ditu, ez bakarrik hizkuntzari, arrazari edo jatorriari dagokionez, baita erlijio-sineskizunei dagokienez ere. Estatu akonfesional bateko ikastetxeek ezin dute eta ez dute erlijio-heziketa jakin bat eman behar, hor sartzen bada behintzat dogmak sinestea, kultu-ekintzetan parte-hartzea, aginduak betetzea edo ez betetzea, ezarritako ohitura edo azturak betetzea, etab. Eta hori berez nahiko zail eta konplexua izanik ere, nola ebaluatu erlijio-portaerak eta nola adierazi balorazioak nota edo kalifikazio akademikoaren bidez?


Beraz, eta nire ustez, azaldutako guztiagatik, erlijio-konfesio edo sinesbideen heziketatik kanpo geratu beharko luke eskolak.



Hezkuntzan

Ion Sarasua

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



Banatu egin dizkigu hezkuntza sistemak. Gizartea eta historia, historia eta filosofia, filosofia eta erlijioa. Kajoietan ematen da 'jakintza' deitzen den hori. Jakintza zera da azken finean, gure aurrekoen bide eta usteek sortutako tradizio-gorputza, hitzetan, sinboloetan eta formuletan emana.

Gure aurrekoen tradizio-goputz zabal horretan, hor dira tradizio izpiritualak, erlijioak. Bizitzaren iturriari buruzko galdera, eta galdera horretatik sortu diren metaforak, sinboloak, harremanak, begiratuak, ekintzak. Tradizio izpiritualen dimentsioa ezagutu gabe nekez uler ditzakegu historia, filosofia, gizartea. Baina, batez ere, nekez uler dezakegu gizateria, gizakia.

Bai, pertsona batek mundualdian egin behar dituen urte apurretan, bere aurrekoek sortu duten esperientzia eta 'jakintzaz' gauza gutxi jakin behar balitu, beharbada gutxi

horietako bat izan beharko luke jakitea zera, zer esan eta sortu duen gizakiak bizitzaren iturriaren galderatik. Badugu gaur horretara hurbiltzeko adina jakintza eta aukera. Erlijio fenomenoa zer den ezagutu, norbere gizarteko tradizio izpiritualen oinarriak ulertu, munduko beste tradizio izpiritualen begiratura hurbildu. Gizakiaren izate-senetik abiatutako hezkuntza bat behar badugu, besteak beste, hori eskaini beharko genukeela iruditzen zait. Nola egin behar den esateko esperientziarik ez daukat, baina somatzen dut, izate-senetik abiatutako hezkuntza behar badugu, badirela beste hainbat gauza berpentsatu beharrekoak.

Haur literaturako liburu hautatuak (3-7 urte)



2003 eta 2004. urteetan etxeko txikientzako aukeratuak izan diren liburuak.

Doako ale bat jaso nahi baduzue, bidaliezaguzue gutunazal handi bat helbide honetara:

Mondragon Unibertsitatea
HUHEZI
M^a Karmen Apraiz
Dorleta Auzoa z/g
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

Bertan zuen helbidea idatzi eta, gastuak zurrizteko, 1,60 €tako zigiluak sartu barruan.

Eskolara ez agertzea gainditzearen inguruko jardunaldietako ondorioak



2004ko azaroan Adarra Erakunde Pedagogikoa Eskolara ez agertzea Jardunaldiak ospatu zituen. Bertan 40 lagun inguru bildu ziren lan asmo hauen inguruan:

- Eskolara ez agertzeari buruzko hausnarketarako marko teorikoa eman eta fenomeno hau berrikusi positibotzat hartzeko.
- Eskola inguruan dabilten egile guztiekin eztabaidatu asistentzia hobetzeko eta eskolako arrakasta bultzatzeko.
- Esperientziak elkartrukatu.
- Ardatz nagusiak zehaztu.

Orain, Adarraren argitalpenari esker, Jardunaldietan egindako hausnarketaren eta eztabaiden ondorioak irakurtzeko eta gaiaren gainean zertxobait gehiago jakiteko aukera daukagu.


ADARRA PEDAGOGIA ERAKUNDEA. Mitxel Labegerie, 2-3º Dpto. 3. Bilbao-48005. Tef: 944153795 / adarra@arrakis.es

Intered eta Kometak hiru mahai jolas kooperatibo berri argitaratu dituzte

“Itsasoa jokoan”, “T´Chang” eta Elur Jausiak, Intered-Kometa taldeak eta Pascal Deru belgikarrak sortu dituzte.

Jolas hauen bitartez elkartasun eta kooperazioko baloreak lantzen dira eta gure gizartean dauden jolas munduan bide berriak zabaltzen dituzte.

Jolas hauen bitartez esperimentatu egin daiteke hobe dela “besteekin jolastea besteen kontra jolastea baino”, “elkarrekin desafioak gainditzea, beste pertsonak gainditzea baino”. Intered-Kometak argitaratutako hiru jolas hauek jolas kooperatiboen ezaugarriak dituzte: 1) denok elkarrekin irabazi edo galtzen dugu, 2) desafio komun bat dugu eta 3) desafioaren aurrean elkarri laguntzeko aukera dugu.



J o l a s
hauen istorioa desberdina da: “Itsasoa Jokoan”

jolasean, jokalarien helburua da petrolio ontzi batek botatzen dituen petrolioizko gailetak jasotzea. Jokalariek lortu ahal izango dute hondartza mehatxatzen duen petrolioizko kapa geldiaraztea?

Jolas kooperatibo honetan, jokalariek irabazi nahi badute, elkarren artean koordinatu beharko dituzte beraien jokaldiak. 1-6 jokalarirentzat, 10 urtetik aurrera.



“T´Chang” jolasa Txinan gertatzen da. Nola aurkitu irteera 7.000 harrizko estatuaz inguraturata dagoen hilobi batean? Hemen isiltasuna eta itzalak dira nagusi, baina zigala batzuk eta ehunzango bat ere badaude eta baita 1400 jolasentzako 1.400 igarkizun proposatzen dizkiguten mila urteko lau dragoi ere. Jolas hau kooperatiboa, familiarra, adimentsua eta desberdina da. Jokalari guztiak elkarrekin lanean aritu beharko dira irabazteko. 1-4 jokalarirentzat. 8 urtetik aurrera (aldaera bat ere bada go 5 urtetik aurrera dituzten jokalari gazteentzat).

“T´Chang” jolasa Txinan gertatzen da. Nola aurkitu irteera 7.000 harrizko estatuaz inguraturata dagoen hilobi batean? Hemen isiltasuna eta itzalak dira nagusi, baina zigala batzuk eta ehunzango bat ere badaude eta baita 1400 jolasentzako 1.400 igarkizun proposatzen dizkiguten mila urteko lau dragoi ere. Jolas hau kooperatiboa, familiarra, adimentsua eta desberdina da. Jokalari guztiak elkarrekin lanean aritu beharko dira irabazteko. 1-4 jokalarirentzat. 8 urtetik aurrera (aldaera bat ere bada go 5 urtetik aurrera dituzten jokalari gazteentzat).



“Elur Jausiak” jolasean, herrialde larrialdiko lau deiadar iristen dira. Lau mendikate garaieran hegazkin bat apurtu da eta bidariak arriskuan daude. Eguraldia oso txarra da: elurra gero eta ugariagoa da eta mendikateen arteko bidea ixteko mehatxua dago. Herrialdean lau talde antolatzen dira eta horietako bakoitza mendikate batera abiatuko da. 3-4 jokalarirentzat. 7 urtetik aurrera.

“Elur Jausiak” jolasean, herrialde larrialdiko lau deiadar iristen dira. Lau mendikate garaieran hegazkin bat apurtu da eta bidariak arriskuan daude. Eguraldia oso txarra da: elurra gero eta ugariagoa da eta mendikateen arteko bidea ixteko mehatxua dago. Herrialdean lau talde antolatzen dira eta horietako bakoitza mendikate batera abiatuko da. 3-4 jokalarirentzat. 7 urtetik aurrera.

Non lor daitezke jolasak: Kometa. Frantziako Pasealekua 8- 1. 20012 Donostia. Tel: 943293847.

E-maila : kometak@euskalnet.net. Web: www.kometak.com



mn
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

-TIRMANIAH FI-
HEZKUNTZA ZIKETA ZIEN
FAKULTATEA